

# etorkizuna ereiten

XII. Nazio Biltzarra  
Ekainak 3-4, Donostia

## **Txosten Politikoa**



## AURKIBIDEA

1. TESTUINGURU POLITIKO, EKONOMIKO ETA SOZIALA. EUROPA, TENTSIOAN.....	2
2. EUSKO ALKARTASUNAREN OINARRI IDEOLOGIKOAK.....	8
2.1. Autodeterminazioa eta independentzia.....	9
2.2. Printzipio demokratikoa.....	10
2.3. Sozialdemokrazia.....	11
3. EUSKAL GIZARTEA ETA BALIOAK.....	13
3.1. Herritartasuna eta printzipio demokratikoa .....	13
3.2. Bizikidetzaren berreskuratzea.....	14
3.3. Kohesioa, nortasun-ezaugarria.....	16
3.4. Feminismoa.....	18
3.5. Euskara.....	19
3.6. Hezkuntza.....	21
3.7. Ingurumenarekin orekan dagoen gizartea.....	22
3.8. Balioak eta identitatea.....	24
4. EUSKAL HERRIA, NAZIOTIK ESTATURA.....	25
4.1. Munduan bere presentzia erabakitze eskubidea duen nazio bat. Printzipio demokratikoa.....	25
4.2. Aldebakartasuna/aldebikotasuna.....	27
4.3. Barne-artikulazioa / Lurralde Historikoen Legea gainditzea / Konfederazioa.....	28
4.4. Diasporaren egitekoa .....	30
5. EUSKAL ESTATUA EUROPAN, ETA EUROPAKO NAZIO ETA HERRIEKIKO HARREMANAK.....	32
Catalunya.....	34
6. PARTE-HARTZE POLITIKORAKO MODU BERRIAK ETA ANTOLAKETA-EREDU BERRIA. EH BILDU ETA EH BAI.....	35

## **1. TESTUINGURU POLITIKO, EKONOMIKO ETA SOZIALA. EUROPA, TENTSIOAN.**

Nazioarteko politika munduak 30eko hamarkadatik ikusi ez duen astindua jasaten ari da, eremu politiko eta ekonomikoan eta, batez ere, gizarte- eta kultura-eremuan. 2008ko Atzeraldia Handia deitutakoa edo krisi ekonomikoa Atlantikoaren bi aldeetan nabarmena izan da, horrek ongizatearen gizartearen oinarrietan eragin negatibo mingarria izan du (zorra, pobrezia, bazterkeria, austeritatea, langabezia, desberdintasunak eta abar), kudeaketa ez eraginkor, insolidario eta despotikoaren ondorioz munduan eta Europan erakunde politiko eta ekonomikoek oro har ospea galtzea ekarri du, eta hogeita hamarreko hamarkadatik ezkutuan egon diren indar politiko ultraeskuindarrak suspertu ditu.

Eskuinaren narrazioak eta diskurtsoak –adibidez lana askatasun-ikur bihurtzea, beldurra terrorismoaren aurrean, diskriminazioa arraza-mehatxuaren aurrean, handitasuna berreskuratzeari buruzko aipamenak eta abar etengabe errepikatzen dira eta nolabait ere Hitler edo Mussoliniren diskurtso garrantzitsuenak ekartzen dizkigute gogora–, azken hauteskunde-emaitzekin batera (adibide esanguratsuena Donald Trumpek Ameriketako Estatu Batuetako presidentziarako lortu duen garaipena da), eskuin muturreko adierazpenak goranzko joeran jartzen dituzte. Hori guztia eredu ekonomiko-politiko baten porrot sozialaren erakusgarri baino ez da. Izan ere, finantza-botereak herritarren oinarriko eskubideen aurretik maltzurki jarriz eta erregulazio egoki baten ezean, ekonomia espekulatiboaren bereikokeriari lehentasuna eman zaio pertsonen duintasunaren, askatasunaren eta ekonomia sozialari dagokion barnerako eta kanporako elkartasunaren aurretik. Hori gutxi balitz, zentro-ezker tradizionala ez da alternatiba sinesgarriak sortzeko gauza izan, XX. mendean kapitalismoaren alternatiba izateko defendatu zituen printzipioak bertan behera utzita.

Hala eta guztiz ere, ezin dugu gaur egungo egoera likidoaren ikuspegia galdu, nazioarteko politika eta goranzko ideologiak nola dauden ikusirik. Duela urte gutxi herritarren kezka politikarekin konektatzeko helburua zuten eta goraka ari ziren erreferentzia politikoek ezkerreko talde heterogeneoak zituzten erreferentzia gisa, eta talde horien arketipoa ezkerreko konbergentzietan kokatzen zen, adibidez Sirizan edota bere adierazpen espainiarrean, hots, Podemosen. Indar horiek bultzada eferbeszente nabarmena izan dute, baina errealitate gordinarekin topo egin dutenean euren kontraesan propioetan disolbatuz eta abiadura berean ahulduz joan dira.

Horregatik, herritarrak erakartzeko ekimen koiunturalen zurrumbiloan murgiltzetik urrunduz, EUSKO ALKARTASUNAK sozialdemokrazia eguneratu eta eraldatzailearen aldeko apustua eta ekintza-batasun nazionalistaren aldeko apustua egiten du Europar Batasuneko Aliantza Libre Europarrarekin (Europako alderdi politikoak, besteak beste EUSKO

ALKARTASUNAK sortua). Aliantza hori herriei dagokien erabakitzeko eskubidea historikoki defendatu duten beste nazio batzuetako alderdiez osatuta dago.

Ildo horretan, azken urteetan gertatu diren aldaketa soziologiko eta kulturalen azterketa lasaia eta sakona egitea ezinbestekoa da, diskurtso zaharkitu jakin batzuk eta joera politiko ultraeskuindarrak barneratzea ahalbidetu duten arrazoiak ulertzeko. Era berean, garrantzitsua da mundu osoan desbideratze edo deriba horren aurrean azaleratzen ari diren herri-erreakzio eta herri-erantzunak aztertzea, baita haien garapena ere. Gizarteak oso bizkor ari dira bilakatzen, aldaketa instituzionalak eraldakuntza-prozesu sakon eta dinamiko baten ageriko punta besterik ez dira, parte-hartzea eta gardentasuna bultzatzen dituzten kultura politiko berrien garapenaren erakusgarri, eta soziologiak eta politikak gero eta zailtasun handiagoak dituzte eraldaketa-prozesu horrekin konektatzeko.

Bestalde, nazioarteko politikaren erronka handien artetik errefuxiatuen krisi humanitarioa nabarmentzen da. Guztiz globalizatuta dagoen mundu honetan, paradoxa bada ere, harresiek zutik jarraitzen dute, eta are gehiago, areagotzen ari dira mundua herritar *desiragarrien* eta *jendilajearen* artean zatitzeko. Berlingo harresia erori zenetik 25 urte igaro ondoren, harresi gehiago ari dira eraikitzen Europan, azken urteetako historiaren errebaso bizkorra eginez gero migrazio-mugimendu ugari ikus ditzakegun arren; Europaren izateko funtsezko arrazoa, hain zuzen ere, oztupoak ezabatzea bazen ere.

Maroko eta Ceuta/Melillaren, Israel eta Zisjordaniaren, Ipar eta hego Korearen, Ameriketako Estatu Batuak eta Mexikoren, Bulgaria eta Turkiaren eta abarren artean harresi zeharkaezinak eraikitzen dira, milaka eta milaka polizia eta militarrek zaintzen dituztenak, fusilak eskutan dituztela pertsonak igaro daitezzen eragotziz; pertsona horietako gehienak gerratik eta pobrezia eta miseriatik ihesi doaz, babesa eta aukera berriak aurkitzeko itxaropenarekin. XXI. mendean sartuta gaudela, harresien urrezko garaian gaude, bizi dugun sistemak berak sortutako pobreziatik datozen migrazioak geldiarazteko logika kapitalistarekin eraiki diren harresiak.

Errefuxiatuen krisiak aspaldidanik datorren eta askoz haratago doan gatazka bat azaleratu du. Azken hamarkadetan mundu-mailako eta Europa-mailako organoetatik bultzatzen ari diren migrazio-politika lotsagabe eta gizagabeen inguruan dagoen gatazka. Krisi humanitario dramatiko baten konponketan inoiz ere oinarritu ez diren erabakiak dira, izan ere, elite oso jakin batzuen interes geopolitiko eta ekonomikoei erantzuten baitiete.

Pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka da EUSKO ALKARTASUNAREN beste erronka nagusietako bat. Pobrezia larria gainditzea lehentasuna izan behar du EH BILDUK, diharduen Administrazio Publikoaren maila guztietako ekintza politikoan.

EUSKO ALKARTASUNAKO kideok Europar Batasunaren fundazio-balioetatik gero eta gehiago aldentzen gaituen desbideratze hori gaitzetsi behar dugu, honako balio hauetatik, hain zuzen ere: pluralismoa, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta diskriminaziorik eza, eta kohesio ekonomiko, kultural eta soziala. Europako indar aurrerakoi guztien arteko lan eta konpromiso bateratua indartu behar dugu, agenda eta helburu komun batzuekin, aurrerantz eraman nahi dugun Europa, eskubideen, askatasunen eta tolerantziaren Europa indartzeko. Europar Batasunak ezin dio bere mugetatik kanpo gertatzen denari ez ikusiarena egin, eta noski, krisi sistemiko sakoneko testuinguru honetan bere buruari galdetu behar dio zein den bere zeregina munduan. Orain Europara iristen ari zaiguna urte luzetan gertatu den guztiaren ondorio delako: ekintzarik eza gerra eta desberdintasunen aurrean eta oligarkia nagusien politika ekonomikoen morrontza, multinazional handien eta banka handiaren etekinen eta norabiderik eta elkartasunik gabeko politiken interesen mesedetan. Europa demokratizatzeko nazioarteko mugimendu aurrerakoi berri bat garatzeko garaia da, Europako mugetatik haratago hedatuko den mugimendua alegia.

Ildo horretan, azpimarratu behar da EUSKO ALKARTASUNAK 80ko hamarkadaz geroztik Aliantza Libre Europarra (ALE) bultzatuz bete duen zeregina; Aliantzak herrien autodeterminazio-eskubidea, demokrazia parlamentarioaren printzipioak eta giza eskubideak defendatzen ditugun alderdi politiko ugari hartzen ditu barnean. Europako sentsibilitate desberdinen arteko lan bateratuak indarrean jarraitzen du, Europar Batasuna jasaten ari den funts- eta balio-krisi larriari irtenbide bat emateko formula gisa. Hori guztia kontuan izanik, ziurtatu behar dugu SNP edo ERC alderdiekin historikoki izan dugun harremanak lehentasunezkoa izaten jarraituko duela ALEren bitartez, autodeterminazio-eskubidearen erreferentzia gisa, eta aldi berean GUE taldeko (ezker europarrak) eta Europako Alderdi Berdeko beste alderdi batzuekin harremanak aberastu behar ditugu, eremu sozialean ere erreferentzialtasuna irabazi ahal izateko.

Herrien Europarantz aurrera egitea eta eremu europarrean ere herritarren erabakitzeko eskubideari balioa eta legitimitatea ematea ezinbestekoa da oso zehatzak diren eta indarrean dauden problematika europarrei irtenbide bat emateko. Izan ere, Eskoziako, Brexiteko edo Catalunyako kasuen bitartez erabakitzeko eskubidea Europako agendan sartu izanak Europar Batasuna barrutik zabaltzeko prozesua eratu beharra eskatzen du, bere garaian EUSKO ALKARTASUNAKO ordezkariak Europako Parlamentuan planteatu zuten bezala, eta behar hori guztiz premiazkoa da une honetan. Ezinbestekoa da herritarren erabakitzeko eskubidearen aldeko sinergiak lortzeko eta, beraz, egungo erakunde eta gizarte europarrak demokratizatzeko lan egiten jarraitzea.

Europako Erakundeak barrutik zabaldu eta demokratizatu ahala, Europar Batasunaren hasierako espiritua berreskuratuko da, pertsonen duintasun eta berdintasunean, ekonomia pertsonen mendean jartzean eta Herrien eta herritarren Europa soziala eratzean oinarrituta, eta, horri esker, Europar Batasunak zeregin garrantzitsua beteko du nazioarteko testuinguruan, Estatu Batuetako, Errusiako eta Txinako egungo erreferentzien eta haien kapitalismo-ereduen kontrapisua eta alternatiba izanik. Munduak, gutxien garatu diren eremuek batik bat, erreferentzia bat behar du Europan, eredu kapitalistari aurre eginez eredu sozial solidarioa planteatuko duena, munduko eremu pobreenetako nazioen eta pertsonen garapenarekin eta askatasunarekin konprometitu.

XXI. mendean bete-betean sartuta gaudela, disrupzio sozial eta ekonomikoko une batean gaude, non teknologia gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den. Europar Batasuneko herri aurreratuenetik eredu sozial berriak, alternatiba ekonomikoak eta mugimendu kultural eta sozial urratzaileak azaleratzen dira. Atzean geratu dira XX. mendean hazkundera bultzatu zuten berrikuntza handiak (adibidez elektrizitatea, autobideak, hegazkinak edo ordenagailuak), gure bizitzak imajinatu ere ezin dugun zerbaitetan eraldatuko dituen berrikuntza-ziklo bati bidea zabalik uzteko: adimen artifiziala, robotak, ikasten duten makinak, errealitate areagotua, 3Dko inprimagailuak, hodeia, Big Data, lankidetzak-ekonomia, objektu konektatuak, telefono adimendunak eta abar. Bizitzen ari garen aldaketen neurriaz jabetzeko, garrantzitsua da ingurune hori osatzen duten makro joerak ulertzea, eta are garrantzitsuagoa da joera horiek elkarren artean nola erlazionatzen diren ulertzea. Izan ere, kasu eta efektu soil gisa ezagutzen genuenak axioma izateari utzi dio. Aldaketa txikiek dimentsio handiko ondorio esponentzialak ekar ditzaketelako.

Negozio-eredu tradizionalen baliozkotasunari buruzko eztabaida mahai gainean dago mende berri honetan. Ekonomia zirkularra aukera garaile eta arduratsu gisa (produzitu, erabili eta botatzeko ekonomia lineala zalantzan jarri da) agertzen da haren arrakastan protagonista izango diren hirien (Smart city) agenda guztietan. Helsinki, Amsterdam, Paris, Londres... hiri zirkularren adibideak dira.

Jasangarritasun ekonomikoan eragina izango duen beste alderdi bat **biztanleriaren zahartzea izango da, edota etorkizuneko lanbideei begira hezkuntza-mailan dagoen hutsunea**. Aldaketa demografiko horiekin batera hainbat erronka agertzen dira, hala nola energia-baliabideen mugapena, energia berriztagarrien erabilera, uraren mugapena, gizarte-erantzukizun korporatiboa, gardentasuna, datu irekiak edota lankidetzak-eredu ekonomiko berriak.

Kapitalismoaren ahalmen suntsitzailea agerian uzten duten adibideak askotarikoak dira: klima aldaketaren mehatxu erreala, baliabide naturalen agortzea, bioaniztasunaren galera, ozeanoen plastifikazioa eta abar luze bat. Guzti honek, eredu sozioekonomiko berri baterantz urratsak emateko garaia dela gero eta garbiago erakusten digu. Gizateria bera

arriskuan dagoelako, gure ondorengoei bizigarri izango den planeta bat uztea zor diegu eta, beraz, arduraz jokatzeko tokatzen zaigu.

Islandia, Danimarka, Norvegia, Finlandia... horren erreferentzia garrantzitsuak dira. Ez dira superpotentzia ekonomikoak. Ezta militarrek ere. Eszenatoki globalean ez dute inolako garrantzirik, eta euren eskualde-testuinguruan ere ez dira oinarrizko zutabeak. Baina, oro har, bizi-kalitate handia dute. Ukatu gabe eredugarriak ez diren hainbat elementuak badituztela (energia nuklearra, erraustegiak, alkoholismoa, arrazismoa eta xenofobiaren hazkundera...) beste ezaugarri asko eta asko oso interesgarriak dira: kalitate handiko zerbitzu publikoak, hazkunde ekonomiko egonkorra, langabezia hutsala, genero-berdintasuna eta lana eta familia uztartzeko erraztasunak, eta hezkuntza-sistema bikaina dira herri horien ezaugarri nagusietako batzuk. Besteak beste, autosufizientzia, gazteen aldeko apustua, Estatuaren esku-hartzea ekonomian, errenten birbanaketa zuzena, langileen babesa, zerga-karga handiak, ustelkeriaren gaineko kontrola eta erantzukizunak argitu beharra kontzeptu interesgarriak dira, ideiak hartzeko eta euskal gizarteari –EH BILDUren bitartez, kasu honetan– zuzenean ekartzeko baliagarriak.

Azken batean, bizitzen ari garen une hain zirrargarriaren, iraultza digital, kultural, politiko, ekonomiko eta sozialaren isla da nazioarteko testuingurua. Aldaketa handien, garai historiko berri baten aurrekoa izan daitekeen une bat.

Eta Euskal Herrian ez gaude gertakari eta errealitate horiekiko isolamendu-testuinguru batean; eta horregatik, ñabardura berezia egin behar dugu justizia sozialaren, gardentasunaren eta demokrazia parte-hartzaile eta barne-hartzailearen balioak erabakiak hartzeko formula gisa irudikatuz. Modernitatearen aldeko apustua egiteak, gizartearen balio, prozedura eta joera berriekin konektatzeko konpromiso gisa, lehentasuna izan beharko du EH BILDU koalizioan, EUSKO ALKARTASUNAREN eskutik. Eta estatu-egitura horiekin, gure subiranotasun-hondar esanguratsuekin (Ekonomia Ituna eta Hitzarmen Ekonomikoa) aurre egin beharko diegun autogobernuaren alorreko erronkekin uztartu behar da, eta prozesu demokratiko parte-hartzaile baten diseinuarekin jarraitu behar dugu, non herri osoak bere estatusa zein izango den eta zein burujabetza-mailaren aldeko apustua egiten duen autodeterminatu ahal izango duen. Guk, EUSKO ALKARTASUNAN, argi dugu; Euskal Errepublika independente bat eratzea.

Ildo horretan aurrerantz egiteko ezinbestekoa da Espainiako estatuko indar zentralisten egungo ahulezia azpimarratzea, izan ere, Espainiako estatuak, ustelkeria sakonaren eta bere ezintasunaren ondorioz, gaur egun Espainiako estatua osatzen dugun (nahi ala ez) nazioei dagokigun eskubide demokratikoa ukatzeko diseinatu zituen egitura ekonomiko, politiko, mediatiko, judizial, sindikal eta enpresarial guztien sinesgarritasuna krisi-egoeran jarri baitu.



Kataluniako herriak eta bere erakundeek egoera hori zentzuz aztertzea erabaki dute, euren independentziaranzko prozesu geldiezin bat inplementatzeko.

Baina ez dezagun geure burua engainatu, gure prozesu demokratiko propioa geldiezin bihurtu behar dugun tokia Euskal Herria da, eta euskal herriaren autodeterminazio- eskubidea errespetatzen duten ezkerreko beste alderdi batzuekin akordioa lortzeak sor ditzakeen irekiera demokratikoko posibilitateak azertu behar baditugu ere, ez dugu ahaztu behar bere zentralismoa eta logika zentripetua nagusitzen dela bere eztabaida eta jarrera politikoetan.

Gainera, EAEn, EAJ – PSE ituna dago indarrean, PPren kanpo-“laguntzarekin”. Madrilera begira dagoen itun bat, eskubide eta askatasunak murrizten dituen, sektore publikoaren sendotasunaren aurkako politikak bultzatzen dituen, eta, azken buruan, aberastasunaren banaketan eta euskal herriak alde bakarretik eta askatasunez erabakitzeko eskubidea baliatzean sinesten ez duena.

Gure etorkizunaren funtsa eta giltza Euskal Herriko herritarren esku dago.



## 2. EUSKO ALKARTASUNAREN OINARRI IDEOLOGIKOAK

EUSKO ALKARTASUNA sortu zenetik 30 urte igaro ondoren, haren sorkuntzari lotutako oinarri ideologikoez indarrean jarraitzen dute. Gizartea bera bezala, denboraren poderioz oinarriak eboluzionatuz joan dira eta eboluzionatzen jarraitu behar dute, gizartea eta politika bizitzen ari diren errealitatera eta aldaketetara egokituz.

EUSKO ALKARTASUNA euskal esparru nazionalako alderdi politiko sozialdemokrata da, eta Euskal Herriko lurralde-batasuna eta independentzia (Europar Batasunaren barruan Estatu propioa Euskal Errepublika gisa eraikita), eta gizarte justuagoa eta solidarioagoa lortzea du helburu.

Alderdi abertzalea, demokratikoa, errepublikanoa, ezkertiar eraldatzailea eta laikoa da. Europak giza eskubide guztien, garapen iraunkorraren, justizia sozialaren, herritarren gizarte-eskubideen defentsaren, feminismoaren, euskararen eta bakearen aldeko jardunean duen tradizio aurrerakoian oinarrituta daude EAren teoria eta praktika.

EUSKO ALKARTASUNAK alderdi abertzale gisa dituen nortasun-ezaugarriak gure historian zehar zehaztu eta finkatu dira, eta honako hauetan labur daitezke:

- a) **Identitarioa eta zibikoa**, Herri edo Nazioaren eskubideak bertan herritarren borondate demokratikoarekin uztartuz, inposizio dogmatikorik eta esentzialistarik gabe.
- b) **Autodeterminazionista**, erabaki demokratikoko tresna gisa, bere barne-antolamendu politikoari eta beste Herri, Nazio edo Estatuiekiko harremani dagokienez.
- c) **Independentista**, edozein Estaturekiko independentzia legal eta juridikoa izateari dagokionez.
- d) **Estatalitate propioa**, Errepublika gisa eratua, Europar txertatua, herritar, lurralde eta eratzeko ahalmen propioekin.
- e) **Estatu bateratua** lurraldeari dagokionez, Euskal Herria osatzen duten Lurralde guztiek osatua, herritarren erabakia bazter utzi gabe eta prozesuak eskatzen dituen urratsak eginez.
- f) **Aurrerakoa, sozialdemokrata eta ezkertiar eraldatzailea**, gizarte iraunkor, zuzen, libre eta solidarioa eraikitzea bideratua, pertsona guztien aukera-berdintasun benetako eta eraginkorrean eta Ongizate Estatuko ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko aukeran oinarritua. Ongizatearen Estatu Europako Sozial Demokraziaren eraikuntza bat da. Herritarren Gizarte Eskubideen defentsan eta babesean oinarritzen da. Kohesioaren eta justizia sozialaren balioen adierazpiderik gorena.

## 2.1. Autodeterminazioa eta independentzia

Sortu zenetik EUSKO ALKARTASUNAK apustu argia eta irmoa egin du honako gai hauen alde:

- European Estatu propio bat eratzea Euskal Errepublika gisa, autodeterminazio-eskubidea baliatuz.
- botere nazional indartsuz hornitutako herrialde-ikuskerara, zatiketa probintzialistaren aurrean, eta,
- pertsona guztientzako giza eskubideen defentsa, helburu politikoak lortzeko baldintza saihestezina izanik.

Hegoaldean ia 40 urteko esperientzia autonomikoa izanik, eta lortutako autogobernu-maila dagokion neurrian ponderatzea bazter utzi gabe, ziur gaude egungo estatutu-eredua agortuta dagoela, eta dagoen aukera bakarra prozesu subiranistaren bitartez eredu hori gainditzea da.

Prozesu horren lehen urratsak egiten ari gara dagoeneko. 2009an subiranismo independentistaren oinarrizko akordio baten alde egin genuen. Gaur egun errealitate bat da, osatu gabe badago ere. EH BILDU Euskal Herri libre, batu eta sozialki justua nahi dugunon batasuna da, baina hainbat herritarrek eta sektore sozial eta politiko subiranista eta independentistak ez dute oraindik koalizioarekin bat egin, eta ahalegindu beharrean gaude, Eusko Alkartasunatik batez ere, horiek guztiek azkenean helburu horrekin bat egin dezaten. Estrategia sozial eta politikoa modu bateratuan berritzeko ari gara lanean, jarrera adoregabeak alde batera utziz eta gure helburuetan sinetsiz.

Argi dago orain arte egindakoa, okerrak eta ondo egindakoak barne, ez dela nahikoa, baina prozesu subiranista martxan jartzearen alde egiten duen akordio estrategiko honek gure herriaren independentzia bultzatuko duen tresna izan behar du, aurrerapen eta justizia sozialaren ikuspegitik. Gaur egun, kontsolidatzen ari den errealitatea da.

Baina gu ez gaude gure esku. Hasi nahi dugun prozesuan eragina duten beste auzi batzuk ezin ditugu alde batera utzi. Mundu-mailan gertatzen ari diren aldaketa geopolitikoek eta Katalunian martxan dagoen prozesu independentistak, egungo egoera zaila gainditu ahal izateko erreakzionatzera behartzen gaituzte, egoera horrek bi ezaugarri ezagun eta garrantzitsu izanik:

- Estatu espainiarrak eta frantsesak ez dute inoiz beren kabuz onartuko gure nazioa, eta horrek, nolabait ere, egungo lurralde-zatiketa eta esparru juridiko-politikoa

sendotzea eta finkatzea dakar. Egoera horretan, EAJ eroso instalatuta dago autonomismoan, eta gainera, ezustean bada ere, Hegoalde osoan handitzen ari da.

- Bestalde, prozesu independentista kataluniarrak EAJren jarrera horri lagundu egiten dio. Estatu espainiarrak Kataluniaren autonomia mehatxatuz egin duen erasoaren ondorioz, EAJk estatutuko konpetentziak defendatu besterik ez du egiten, alde bikotasuna beharrezkoa dela aitzakia gisa hartuz.

## 2.2. Printzipio demokratikoa

Eusko Alkartasuna alderdiak ez die inoiz uko egin Euskal Herriak mendez mende izan dituen eskubide historikoei eta, hain justu, horregatik sortu zenetik defendatu izan du herrien autodeterminazio-eskubidea.

Herrien autodeterminazio-eskubidea egungo nazioarteko zuzenbidearen oinarriko printzipioetako bat den arren, eskubide hori baliatzeko garaian hamaika oztopo izaten dira, batik bat, Estatu finkatuen aldetik; izan ere, eskubide honen aplikazio praktikoa euren egoera ekonomikorako eta politikorako arriskutsua izan daitekeela uste baitute.

Egoera horren aurrean, EUSKO ALKARTASUNAK "Printzipio demokratikoa" berreskuratu zuen Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa konpontzeko formulatuz.

Printzipio demokratikoa ezaguna egin da jendearen artean Kanadako Gorte Gorenak Quebec-eko egoerari buruz emandako Irizpenaren ondoren, baina askoz ere tradizio zaharragoa du, 70eko hamarkadako baita.

Kanadako erakunde hori Estatuko Konstituzio Auzitegiaren parekoa da eta, esan zuenez, erreferendum bat egin eta Quebec-eko herritarren gehiengoak independentziaren alde bozkatuko balu, Kanadako Gobernuak "borondate horri erantzuteko beharrezkoak diren konstituzio-aldaketak" adostu eta negoziatu beharko lituzke.

Ikuspegi praktikotik begiratuta, printzipio demokratikoaren aplikazioak Estatuak eta Nazioarteko Komunitateak autodeterminazio-eskubidea onartzeko jartzen dituzten oztopo nagusiak kontuan ez hartzea ahalbidetzen du: legezko testu politikoetan esanbidez ez onartzea, Herria garela ukatzea, eta alde aurretik Nazioa osatu izana.

Printzipio hau nazionalismo zibikoan oinarritzen da, eta ez du eskatzen alde aurretik Estatu edo Nazioa osatu izana, ezta hori aintzat hartu izana ere. Nahikoa da herritarrek hartutako erabaki demokratikoa. Bestalde, Konstituzio demokratiko guztien oinarriko printzipioa denez, ez da beharrezkoa esanbidez formulatzea edo aintzat hartzea, eta

printzipio hori errespetatzen bada bide demokratikoak irekitzeko aukera ematen du Europar Batasunaren baitan gure estatus politikoa erabakitzeko. Baikorrak gara Quebeceko esperientziaren ondoren, atea ireki baita estaturik gabeko nazioek (hala nola Eskoziak, Kataluniak eta Euskal Herriak) printzipio demokratikoa formulatzearen bidez independentzia lortzeko.

Azken batean, EUSKO ALKARTASUNAK, Eskubide Historikoez eta Autodeterminazio Eskubideaz gain, Printzipio Demokratikoa biltzen du esanbidez bere ideia politikoen artean.

### 2.3. Sozialdemokrazia

Ikuspuntu sozioekonomikotik, EUSKO ALKARTASUNA ezkerreko alderdi gisa erata dago, sozialdemokrazia eraldatzailearen esparruan, justizia soziala alderdiaren politiken eragile nagusia izanik, eta alderdiaren politikan elkartasunari eta aberastasunaren banaketari lehentasuna emanez, Euskal Herriaren barruan zein kanpoan. Horrela, beraz, argi eta garbi bereizten da Euskal Herriko, Espainiako eta Europako eskuin tradizionaletik.

Sozialdemokraziak eskubide ekonomiko indibidualak gizarteratu nahi ditu dagokien gizarte-eginkizunari lehentasuna emanez, autodeterminazioaren bitartez eskubide politiko indibidualak Gizarte Taldeei eta herriei aplikatu zitzaizkien bezala.

Autodeterminazioak eta Sozialdemokraziak inspirazio-iturri beretik edaten dute: eskubide indibidualak —sozialak, ekonomikoak eta politikoak— gizarte- eta herritar-taldeetara hedatzea.

Autodeterminazioaren eta sozialdemokraziaren arteko lotura horrek koherentzia ematen die gure oinarri ideologikoei. Autodeterminazioa exijitzen dugu, eta burujabetza nazio gisa erabat egikaritzea eskatzen dugu, herritar burujabeek osatutako nazio gisa, askatasun zibiletan burujabe eta eskubide ekonomiko eta sozialetan ere burujabe. Baina garapeneredu berri baten bidez soilik izango dugu Euskal Herriko gizon eta emakumeek erabateko burujabetza baliatzeko aukera, produkzio-harreman berriak, botere-harreman berriak eta bizimodu berriak bilduko dituen eredu baten bidez.

Maiz adierazi dugun bezala, gure asmoa independentzia da, bai, baina, gure identitate nazional eta kulturalaren bidezko defentsagatik ez ezik, independentzia delako Estatu bat —Ongizatearen Estatu— osatzeko ezinbesteko tresna edo oinarria. Horrek gizarte bidezkoagoa eta kohesionatua ekarriko du berekin, eta hartan biziko diren herritar guztiek aukera berberak edukiko dituzte beren bizi-kalitatea eta aukera-berdintasuna bermatuko dituzten zerbitzuetara iristeko.

Sozialdemokrazia hitzak, berak, XX. mendearen hasieran eta 2. Gerra Handiaren ostean lortu zuen zilegitasuna galdu duelakoan gaude, batez ere, azken hamarkadetan izan duen bilakaera neoliberalagatik. Blair, Schroeder, eta orokorrean, Europako alderdi sozialista tradizionalen jokabideak, neoliberalismo basatiaren osagarri edo, are okerrago, zuritzaile bezala agertu baitira. Sistema sozioekonomiko justuago baten oinarriak finkatu edo proposatu beharrean, pairatzen dugun kapitalismo bihozgabe eta basatiaren zutabe gisa jokatzuz, jatorrizko balioen karikatura bat izateraino eta progresismoaren esanahia hustuz. Eusko Alkartasunak proposatzen duen sozialdemokrazia eraldatzaileak, paper garrantzitsu bat bete beharra du. Egungo egoeratik abiatuz, beste sistema sozioekonomiko batera eramango gaituen oinarri eta printzipioak proposatuz.

Eta ezkerreko beste zenbait korrontek sozialdemokrazia gaitzesten duten garai hauetan, EUSKO ALKARTASUNAK autokritika egin du, bere burua sozialdemokraziaren barruan kokatzen duen aldetik, eta European sozialdemokraziari atxikitako gobernuek pertsonak defendatzearekin loturiko oinarritzko kontzeptuei uko egin dietela onartu du, merkatuen alde eta sistema kapitalistako boteretsuenen interesen alde egiteagatik. Horregatik, eta formulazio teoriko guztien moduan, sozialdemokrazia ere aldaketaren, bilakaeraren eta aurrerabidearen legearen eraginpean dagoela kontuan izanik, herritarren interes eta eskubideak elite ekonomiko eta politikoen interesen gaintik lehenesteko konpromisoa hartzen dugu, eta aberastasuna modu bidezkoagoan birbanatzearen alde lan egiteko konpromisoa, errealitate hori euskal gizartearen oinarri izan dadin.

### 3. EUSKAL GIZARTEA ETA BALIOAK

#### 3.1. Herritarrak eta printzipio demokratikoa

Euskal nazioaren existentzia ukatzen dutenen diskurtsoan ohikoa da euskal gizartea plurala dela, identitate desberdinen batura dela azpimarratzea. Abertzaleei herritartasun-kontzeptua komunitate nazional bateko kide izatearen gainetik jartzea aurpegiratzen dieten berdinak izan ohi dira. Ustezko nagusitasun moral batetik, eta modernitatearen alde dauden bakarrak beraiek direla konbentzituta, herritarren berdintasun-ideia bat aldarrikatzen dute baina eztabaidatu ezin den eremu politiko-administratibo batera mugatua; Espainiako nazioa.

Ikuspegi erredukzionista horretatik aldenduz, EUSKO ALKARTASUNAK, sortu zenetik, bere ideia abertzaleak “(Euskal) Nazioaren eskubideak herritarren borondate demokratikoarekin inposizio dogmatikorik eta esentzialistik gabe uztartzen dituen” nazionalismo batean oinarritzen ditu, eta era berean adierazten du “Aurrerakoia eta sozialdemokrata dela, gizarte iraunkor, zuzen, libre eta solidarioa eraikitza bideratua, aukera-berdintasunean eta Ongizate Estatuko ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko aukeran oinarritua”. (V. biltzarreko txosten politikoaren printzipioak, X. biltzarrean berretsiak)

Eta beraz, EUSKO ALKARTASUNAK bere egiten du eusko legebiltzarrak 2004ko abenduaren 30ean onartu zuen Estatutu Politiko Berriaren hitzaurrean biltzen den deklarazioa, izan ere, onartzen baitu “askatasunean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritzen den autogobernua, bizikidetzaren balio gorenak direlako, eta beraz, euskal Botere Publikoen jarduna hori defendatzea izango da, eremu indibidualean eta kolektiboan egikaritzen dela bermatzeko. Gainera, euskal botere publikoen balio komunak dira eta Euskadin autogobernuaren egikaritzapena artikulatzen dute justiziak, berdintasunak –berezi gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak–, giza eskubideen deklarazio-kanon unibertsaletan onartutako eskubide indibidual eta kolektibo guztien defentsak, elkartasunak, garapen ekonomiko jasagarriak, diferentziarekiko eta gutxiengoaren eskubideekiko errespetuak eta balio eta joera unibertsalen onarpenarekin eta parte-hartze aktiboarekin bateragarria den identitate propioaren aberasteak”.

Euskal gizartea plurala da, mendebaldeko munduko gizarteak bezalaxe. Fenomeno hori handitzen ari da eta gero eta konplexuagoa da globalizazioaren ondorioz; globalizazioa bizi garen mendeari lotuta dagoen elementua da. Baina gizarte-aniztasuna izateak ez du esan nahi denok propiotzat jotzen dugun gune bat partekatu ezin izatea; herritar-eremu bat, euskal herritarren balio bereizgarrien ondarea elkarrekin garatzeko.

Euskal gizartearen aniztasuna guztiz onartuta egonik, premiazkoa da beste jatorri geografiko batzuk dauzkaten herritar ugariak integratzeko neurriak hartzea, guztien berezitasunak zorrotz errespetatuz gure kulturara eta gure tesi politiko eta sozialetara erakarri behar ditugunak.

Egiaztapen objektibo hori oinarritzat hartuz, hain zuzen ere, EUSKO ALKARTASUNAK defendatzen du euskal gizarteak baduela bere antolaketa politikoa erabakitzeko printzipio demokratikoa baliatzeko eskubidea. Gizarte-multzo berekoak diren herritarrak, lortu nahi duten proiektu politikoa erabakitzeko eskubidea inposaketarik gabe eta berdintasun-planoan baliatu dezaketena. Herritartasun unibertsalaren kontzeptuan oinarrituta, Euskal Herrian bizi den edozein pertsona, haren jatorria edozein izanik ere, euskal herriaren eskubideen jabe izango da, eta Euskal Herriaren oraingo eta etorkizuneko erabaki guztietan parte hartzeko eskubidea izango du. Eta Eusko Alkartasunaren erabaki horien ondorioz independentzia badator, herritarrek, euskal nazionalitatearekin batera, beren nazionalitatea lortzeko aukera ere izango dute, nazioarteko egungo testuinguruan hainbat Estatutan dagoeneko indarrean dagoen nazionalitate bikoitzeko estatusaren bitartez.

### 3.2. Bizikidetzaren berreskuratzea

Gerrak, jazarpenak, aurkakoaren ukoak, askatasun mugatuak, eta mota guztietako indarkeriek Euskal Herriaren azkenaldiko historiaren zatirik handiena markatu dute. Gure gizartea askotan eta denbora gehiegiz ezin adiskidetzeko bandotan zatitu duten gertaera nazional tamalgarriak.

Azken gorpil zoroa Espainiako 2. Errepublikaren aztoramenduaren haritik etorri zen: 36ko gerra suntsitzailea, Euskal Herrian ere izaera zibil espezifikoa izan zuena; gerraondo latza; diktadura frankista; nazioarteko abandonua; eta abar. Horren guztiaren ondorioz, erresistentzia zibil eta politikoaz gain, indarkeriazko erreakzioa bat sortu zen ETaren borroka armatuaren eskutik, diktaduraren amaiera gaindituz nazioartean terrorismoa deitzen zaion molde hartu zuena, aldi berean gerra zikineko ekintzak, Estatu-terrorismoa, torturak eta hitza eskubideen urraketak antolatzen zirelarik. Gizarte zibilak ere mehatxuak eta estortsio ekonomikoak pairatu zituen, gaizki deitutako zerga iraultzailea adibidez, terrorismoa gizarteratzeko estrategiekin batera, azkenean bereziki mingarriak izan zirenak.

Eusko Alkartasunak beti gaitzetsi ditu indarkeriaren erabilera eta giza eskubideen urraketa guztiak, salbuespenik gabe, nola gure militante eta jarraitzaileek hala gainerako herritarrek jasandakoak. Baina irmotasun berarekin betidanik defendatu dugu demokrazian elkarriketa dela gatazka politikoak konpontzeko bide eraginkorrena, gerra-hizkuntzarik erabili gabe eta garaitzearen aurretik konbentzitzea jarritz; uste oso horretatik soilik lortuko



dugu, hizkuntza militaristak zokoratuta, gizarte baletsu baten oinarri sendoak jartzea. Ikuspegi horretatik abiatuta, gure alderdia inplikatu da eta bete-betean jardun du, beste hainbat agente politiko eta sozialekin batera, Euskal Herrian Bakea errealitate bihurtzeko, eta horrela orain bost urte egungo egoera honetara iritsi ginen, euskal herritarrek urte luzetan itxaroten zuten egoera honetara, hain zuzen.

Zorionez, 2011ko urrian ETaren alde bakarreko adierazpena behin betiko ekarpena da indarkeria-ziklo hori ixteko prozesuan, baina Espainiako eta Frantziako estatuak ez dira tamainako erantzuna emateko gauza izan: izan ere, azken 5 urteetan erakunde armatuak atentaturik eta estortsiorik egin ez badu ere, diskurtsoak eta praktika politiko-judizialak aldatu gabe jarraitzen dute, eta haien jardunak erabilerak eta presentzia polizialak ez datoz bat egungo errealitatearekin, inolako beharrik gabe etapa baten behin betiko itxiera berandutzen dutelarik, gizarteak hori guztia lehenbailehen atzean utzi nahi duen arren.

Baina azken 5 urteetan atentaturik eta estortsiorik ez egoteak ez du esan nahi bizikidetzaren normalizatu eta baketsua berreskuratzen dela automatikoki. Iraganeko bidegabekeriaren biktima izan diren pertsona guztien egoerari, salbuespenik eta parekatzerik gabe, merezi duen erantzuna emateko, salbuespenezko praktika eta sistema judizialak bertan behera utzi behar dira eta justizia trantsizionaleko planteamendu bati heldu behar zaio, giza eskubideen urraketa horiek jasan dituzten pertsona guztiei zor zaien aitortzaren, egiaren. Justiziaren eta erreparazioaren premiari erantzuteko, adiskidetasunean eta bakean biziko den gizartearen lortzeko beharrezkoa den heinean.

Espetxe-politika bidegabe eta desegoki batek jarraitzen du indarrean, eta haren haritik giza eskubideen urraketa berriak gertatzen dira, zigor-neurri bidegabe eta guzti, osasun-baldintzak edo familia-erantzukizunak kontuan hartu gabe, eta preso senideen sufrimendua areagotuz urruntze- eta sakabanatze-politiken bitartez, zigor horiek guztiz arbitrarioak izanik inolako kondena judizialen ondorio ez direlako. Hori guztia onartezina da ikuspegi demokratiko batetik. Bidezkoa da espetxe-politika aldatzea espetxean dauden pertsonen gizalegezko tratua bermatzeko, haien senideak zigortu gabe, eta, egoera gainditzeko eskuzabaltasunez jokatzeko, justizia trantsizionalari bide emateko normalizazio-prozesu batean, non, agente guztiek, hauteskunde- edo politika-etekinak ateratzeko asmoak alde batera utziko dituzten.

Beharrezkoa da alderdi guztien ahalegina egitea. Bestea bilatu eta aurkitzeko borondatea, errebantxa-asmoarentzat tokirik izango ez den euskal gizarte bat ahalbidetzeko helburuarekin. Ahalegin horretan, EUSKO ALKARTASUNAK pertsona guztientzako eskubide guztien defentsarekin izan duen konpromiso historikoari eutsiko dio.

Emaitza gisa, memoria kolektibo plurala eta osatua eta egiazko kontakizun edo errelato historikoa geratuko dira. Kontakizun horren azken kapituluan, eta haren gertaera nagusi gisa, euskal herritarrak erkidego nazional gisa duinduko gaituen egiazko adiskidetzea lortzea dugu helburu.

### 3.3. Kohesioa, nortasun-ezaugarria

Euskal Herriaren historian protagonismo handia izan dute mota guztietako elkartze-erperientziek. Landa-munduan sortu zen lankidetzakulturak oso garapen garrantzitsua izan zuen industria- eta zerbitzu-sektoreetan euskal kooperatiba-sarearen sorkuntzarekin. Kooperatiben asoziazionismoak ere garrantzi handia izan zuen irakaskuntzaren munduan, euskal kulturaren garapenari mugak ezartzen zitzaizkion garai batean ikastolen mugimendua martxan jarri baitzuten. Beste nortasun-ezaugarri bat zera da, dohaintza sanitarioen edo nazioarteko elkartasunaren adierazleetan euskaldunok dugun toki nabarmena.

Auzolanaren espiritu hori eremu askotan lagungarria izan da gure gizartea inguruko gizarteetan baino diferentzia sozial txikiagoekin eratzeko. Gaur egun, autogobernu erlatiboko testuinguru honetan, non ongizate-estatua eratzen duten hainbat elementu garrantzitsu euskal botere publikoek administratzen dituzten, beste administrazio-lurralde batzuekiko aldeak ere nabarmenak dira. Gai horretan, azpimarratzekoa da EUSKO ALKARTASUNAK erakundeetako gobernuan edota legebiltzar-oposizioan egon denean hainbat eremutan (adibidez hezkuntza, herritarren gizarte-eskubideak edo ingurumena) lortutako aurrerapenetan egin duen ekarpen historikoa.

Hala eta guztiz ere, azterlan fidagarriek frogatzen dutenez, egungo erabateko krisi-egoerara (ekonomikoa, ekologikoa eta soziala) eraman gaituzten sistema kapitalistaren logikak eta garapenak, eta European eta gure inguruan erreakzio moduan gauzatu diren politika publikoek eragin handia izan dute eta eten edo bretxa soziala nabarmen handitu dute, baita Euskal Herrian ere. Gaur egun desberdintasunak handiagoak dira, eta gure historian lehen aldiz belaunaldi batek bere aurreko belaunaldiarekin konparatuta hobetzeko dituen itxaropenak arriskuan daude.

Aldatu ez den testuinguru sozial horretan EUSKO ALKARTASUNAK 2013. urtean XI. Biltzarra egin zuen. Barañainen, EUSKO ALKARTASUNAK txosten sozioekonomikoa onartu zuen, eta duela 30 urte alderdia sortu zenean ezarri zen fundazio-konpromisoa berretsi zuen, sozialdemokraziaren postulatuekin. Txosten horretan adierazten denez, sozialdemokraziak helburu gisa ezartzen du pertsona guztientzako bizimodu egokia lortzea, eta helburu horrek indarrean jarraitzen du. Gure alderdiak hasieratik bultzatu duen eredu ekonomikoa

pertsona guztien duintasunean eta justizia sozialaren bilaketan dago oinarrituta, hori baita gizarte kohesionatuagoa lortzeko funtsa.

Orduan adierazi genuenez, “krisi horrek arriskuan jarri du gure elkarbizitza bera, eta agerian utzi ditu sistema ekonomikoaren gabeziak eta gure antolamendu administratibo eta sozialaren akatsak”, eta berdin jarraitzen dugu. Horregatik, garai hartan aldarrikatu genuen EUSKO ALKARTASUNAREN ekintza publikoaren funtsa osatzen zuten alderdiak honako hauek zirela, eta gaur egun ere badira: “aukera-berdintasunaren eta norberaren sorkuntzarako eta jardunerako askatasunaren bermea, pertsona guztien eskubide guztien aitortpena, egoerarik txarrean daudenekiko elkartasuna eta arreta, gardentasuna eta parte-hartze publikoa baliabideak erabiltzean, kooperatibismoaren sustapena, alderdi sozialen babesa botere ekonomikoen aurrean, eta merkatuaren hutsegiteen kontrol zorrotza”.

Euskal Herriaren orainaldiak eta etorkizunak erronka eta mehatxu handiak dituzte. Gure egitura ekonomikoaren bideragarritasun eta kaudimenaren, zerga-sistemaren, demografiaren eta abarren gaineko erronkak eta mehatxuak... eta gu mundu globalizatu baten parte izatearen ondorio diren erronkak eta mehatxuak, mundu globalizatu horretan gure inguruetik kanpo hartzen diren erabakiek eta egiten diren ekintzek ere guregan eragina baitute. Horri lotuta, hainbat sorburu dituzten krisi humanitarioek ekarri dituzten migrazio-mugimenduen errealitate berria oso garrantzitsua da, eta harrera egiteko ahalmena duten herrialdeek erantzun solidarioa eman behar dute, baita gure herriak ere.

Testuinguru horretan, beste edozein kontsiderazioren gainetik, EUSKO ALKARTASUNAK adierazten du gizarte-kohesio handiagoa lortzea uko egin ezinezko helburua dela, eta erronka eta mehatxu haiei aurre egin nahi dien edozein soluziok helburu hori kontuan izan beharko du. Gizarte barne-hartzaileagoa eta solidarioagoa eraikitzea posible da Euskal Herrian. Baina posible ez ezik, gizarte duinago bati bide emateko helburua Euskal Herrian antolamendu politiko subiranoa izateko egiten dugun erreklamazioa justifikatzen duena ere bada; pobrezia eta gizarte-bazterkeria izatea –pobrezia larria, batik bat– da kohesio sozialaren aurka egin daitekeen eraso bortitzena. Herritarren % 3,5 sozialki guztiz bidegabea den egoera horretan bizi da, eta horregatik lehentasunez heldu behar diogu gure ekintza politikoaren bitartez.

### 3.4. Feminismoa

EUSKO ALKARTASUNAK ikusita gaur egungo jendartean emakumeengan dagoen indarkeria eta honen ondorioz, emakumeak emakume izateagatik hiltzen ari direla, feminismoa, eta emakumeen defentsa politikaren lehen lerrora eraman behar dela sinistuta gaude.

EUSKO ALKARTASUNAK euskal gizarte demokratikoa, baketsua eta “eskubide guztiak pertsona guztientzat” premisa ezagunean oinarritzen dena eraikitzeko funtsezko tresna izan nahi du. Demokrazia “pertsona izatea posible ez ezik betebeharra ere baden ordenatzat” jotzen badugu, era berean, pertsona izateko aukera ematen digun (batez ere emakumeoi) baldintza kultural, sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen multzotzat jotzen dugu ordena hori. Hori da azken 3 mendeetan eztabaidan egon dena: emakumeak berez garelako pertsonak onartzea, eta ez gizarteari egin diezaiokegun ekarpenarengatik: ez beste herritar batzuen amak izateagatik, ez hizkuntzaren, eta beraz, mundua ulertzeko modu espezifiko baten transmisore eta horren ondorioz identitatearen egilekide izateagatik, ez komunitatearentzat baliagarri izateagatik, baizik eta soil-soilik pertsonak izateagatik.

Emakumeek sortu ez ditugun erakundeek, edota emakumeek egin ez ditugun legeek gizartea emakumeen giza izaera onartzera behartzen ez duten bitartean, ezingo dugu esan gizarte demokratiko, baketsu eta justizia sozialean oinarritutakoan bizi garenik. Eta are okerrago, emakumeak baztertzeko, esplotatzeko, bortxatzeko eta hiltzeko jarraituko dute, soil-soilik emakume izateagatik. Gizarte zuzen batek ezin du bere burua halakotzat hartu, emakumea izatea arrazoi nahikoa baldin bada haiengan indarkeria erabiltzeko.

EUSKO ALKARTASUNAREN ustez, gizartea ulertzeko modua berritu egin behar dugu. Horretarako, ezinbestekoa da heteropatriarkatuak diseinatutakoez bestelako harremanak sortzea, eta gizarte berri bat gauzatzea, gizarte horren oinarria jakintza solidarioa eta eskubideak izanik, eta ez lehia edota bazterkeriak. Horregatik, EUSKO ALKARTASUNAK ikuspegi feminista bat eskaintzen du euskal gizartearentzat. Berdintasunaren oinarri horrekin, eta EUSKO ALKARTASUNAREN DNA kontuan izanik, ez da inoiz ere proposatuko inor bazter uztea. Ez da inor menderatzeko itun bat, emantzipazio eta askapenerako itun bat baizik; eskubideen itun bat, azken batean. Horrela, garapenari buruzko egungo teoriak “bizimodu ona” deritzotena lortzeko bidean gizarte gisa aurrerantz egingo dugula uste dugu; bizimodu ona eta justizia, justizia sozialaren oinarriak. Horretarako, aldarrikatzen dugu gizartearen egitura horizontalagoa eta ez hain bertikala, nagusitasun edo lidergo hierarkikorik gabe, hots, gizarte solidarioa eta berdintasuneko.

Uste dugu modu horretan euskal gizartea honako balio hauetan oinarritu ahal izango dela:

- Baliokidetasuna: Giza Eskubideen oinarrizko printzipioa, zeinetan denok berdin balio dugun.

- Ekitatea: modu justuan aurrerantz egitea dugu helburu, gizartean justizia lortzeko.
- Ekipotentzia: botere-garapena, gizartean bete-betean bizitzeko eta parte hartzeko.
- Ekifonia: pertsona guztien entzuteko eta hitz egiteko eskubidea.

Hori guztia kontuan izanik, EUSKO ALKARTASUNAK bere egiten du feminismoa, euskal gizarte aske, baketsu, zuzen eta aurrerakoiagoa sortu eta egituratzeko funtsezko tresna delako. Hortaz, guretzat lehentasunezkoa da Administrazioaren eremu guztietan berdintasun-planak egitea, eta horretarako ekintzak eta aurrekontuak antolatzea.

### 3.5. Euskara

Euskal hizkuntza, “lingua navarrorum”, euskara, komunikazio-tresna bat, hiru erkidegoetan (EAE, Nafarroako Foru Komunitatea eta Elkargoa edo Pays Basqueko Kolektiboa) bizi garen herritar guztion ondarea den altxor linguistiko, kultural eta historiko bat izatetik haratago, gure nazioa identifikatzen eta gure lurraldea definitzen duen hizkuntza ere bada, Euskal Herria “euskararen herria” delako. Muga bat suposatu beharrean, gure kolektibitate nazionala zabaltzen du, munduko edozein tokitan euskaraz hitz egiteagatik euskaldunak diren herritar guztiengana hedatuz.

Gaur egun, gure hizkuntza ofiziala, euskara, bere jatorriaren eta bizirautearen enigma gorabehera, egoera larrian dago, baina bizi-bizia, halere, edozein hizkuntzaren sostengu nagusia diren hiztunen artean, eta Euskal Herri osoko herritarren gehiengo zabalaren babesa, errespetua eta estimua ere badu gainera, baita zirkunstantzia historiko edo geografikoak direla medio beren eta arbasoen hizkuntza ezagutu eta erabiltzeko aukerarik izan ez dutenen artean ere, askok eta askok beren seme-alaben hizkuntza izatea ere nahi dutelarik. Zailtasunak gorabehera, euskara gure lurralde askea da, gure aberria.

Euskara euskal herritarron altxor preziatuena da, herri-nortasuna ematen diguna, eta EUSKO ALKARTASUNAK ahal duen guztia egingo du nortasun hori mantendu eta indartzeko.

Euskal gizarteak ondare itzela dauka. Hortaz, euskarari, gure hizkuntzari, aipamen berezi bat egin behar diogu. Gauza jakina da Euskal Herria euskaldunen herria dela, eta ukaezina da, halaber, euskaldunok euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz egiten dugula. Zoritxarrez, denborarekin, gure hizkuntza, euskara, herri baten hizkuntza izatetik gure aberrian Hizkuntza minoritarioa izatera igaro da.

Hainbat eta hainbat ikerketa eta gogoeta egin dira egungo egoerara zer dela-eta iritsi garen argitu nahian. Hizkuntza bat bizirik dago hiztunek erabiltzen duten bitartean.

Egia da azken 35 urteetan euskararen egoerak, edo, hobe esanda, gizarteak euskararekiko duen jarrerak eta sentsibilizazioak, aurrera egin duela, baina gure hizkuntza indarberritzearen aldeko apustua egiteko garaia iritsi da, haren gainbeherari bakarrik begiratu beharrean. Gure hizkuntzarekiko jarrera aldatu beharrean gaude. Hizkuntzaren ekintzaile bihurtu behar dugu, jarrera negatiboak alde batera utzita.

1982an EAEn onartutako Euskararen Legea zaharkitu egin da, eta lege berri bat aldarrikatzeko garaia da. Egungo errealitate soziolinguistikoari erantzun behar dio Lege berriak, besteak beste teknologia berriak kontuan hartuz, azken urteetan izugarri garatu direla aintzat hartuta. Nafarroan ere, egoera desberdina izanik, egun indarrean dagoen “Ley del Vascuence” indargabetu beharra dago Euskararen Lege berri bat onartu ahal izateko, eta horrela, egungo zonifikazioak suposatzen duen diskriminazioa ezabatzeko.

Administrazioen babes ekonomikoa funtsezkoa da euskararen ezagutza zabaltzen jarraitzeko, eta babes hori arreta handiz kudeatu behar da, agenteen ekimenen gainetik inondik inora jarri gabe. Eta ezinbestekoa da alderdi abertzaleek norabide horretan apustu argi bat egitea.

Azken urtetan Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako gobernuak, UPNren eskutik, hizkuntza-politikan egindakoak ez du bidea erraztu. Erakundeen eskutik jasotzen zituzten diru-laguntzak murrizten edo desagertzen ari zirela ikusirik, euskal kultura-agenteez eta hedabideez kolokan ikusi dute lana eta etorkizuna. Eta hori onartezina da guretzat. Euskal Herriko erakunde guztietan euskararen estatusa bermatuko da, ekintza politikoaren ardatz bihurtuta, eta horretarako behar diren baliabideak ziurtatuko dira.

Administrazio Publikoa euskalduntzeko urrats sendoak ere egin behar dira. Pixkana-pixkana aurrera egin behar dugu bi hizkuntza ofizialek tratamendu bera izan dezaten enplegu-eskaintza publiko guztietan

Hezkuntzan, hizkuntza-eskakizunetan oinarritutako sistemak eman zezakeen guztia eman du jada. Gaur egun ez du bermatzen DBHra iristen diren ikasle guztiak elebidunak izatea, eta horrek sakoneko gogoeta eskatzen du. Ildo horretan eskatu beharko genuke Euskal Herri osoko ikasleek, oinarritzko ikasketak amaitzean, euskara ezagutu eta euskaraz bikain hitz egitea. Halaber, Euskal Herri osoko administrazio publikoek ere euskaldunak izan beharko lukete maila eta alor guztietan, gizarteak ezarritako arrazoizko epearen barruan.

Titulartasun publikoko hedabideek (EITB) funtsezko zeregina bete behar dute euskalduntze-prozesuan. Gero eta kanal eta irrati gehiago eskaintzen dituen testuinguru teknologiko honetan (TDT, kable eta satelite bidezko telebista...) euskarazko komunikazio-eskaintza gero eta txikiagoa da. Titulartasun publikoko hedabideek euskararen alde egin behar dute, eta pixkana-pixkana aurrera egin behar dute hedabide publikoek euskara hutsezko eskaintza lortu arte.



Nolanahi ere, euskarak behar duen eta guk nahi dugun estatusa lor dezan, denok dugu zer egin eta zer esan. Gutako bakoitzak, eredugarri jokatzeaz gain, eraldatzaile ere izan behar dugu. EUSKO ALKARTASUNAK eredugarri eta eraldatzaile izan behar du aldi berean, eta gure hizkuntzak, euskarak, alderdiaren diskurtsoaren eta zeregin politikoaren ardatza izan behar du.

Ipar Euskal Herrian, 2017. urtearekin batera lanean hasi da Euskal Elkargoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa biltzen dituen euskal erakundea. Hiru lurraldeak batera onartzen dituen lehen erakundea izanik, aukera berriak zabaltzen dira gure hizkuntzaren ofizialtasunaren alde baterako urratsak egiteko bidean.

Lau haizetara aldarrikatzen dugu Nazio bat garela. Baina nazio batek ezin dezake bere hizkuntza alde batera utzi. Hiztun berriak hizkuntzaren etorkizuna dira, eta EUSKO ALKARTASUNA, inoren hizkuntza-eskubideak urratu gabe, euskalduna izango da etorkizun hurbilean.

### 3.6. Hezkuntza

XXI. mendean sartuta gaude eta bizitzen ari garen garaian gure gizartean nabariak da arlo digital, kultural, politiko, ekonomiko eta sozialean sortzen ari den iraultza. Iraultza honetan edozelako giza taldearen garapenerako ezinbestekoa den Hezkuntza txertatzea ezinbestekoa da. Hezkuntza ardatz izan behar du etorkizuneko gizartearen eraikuntzan eta horrekin bat egiten du Eusko Alkartasunak.

Hezkuntza ezin da zeharkako gaia bihurtu. Baina era berean adierazi behar dugu ez garela zerotik abiatzen. Eusko Alkartasunak badu zer esana arlo honetan.

Egun, etorkizuneko lanbideei begira hezkuntza mailan hutsuneak daudela onartuz, era berean hezkuntza sistema bikainerantz bideratu behar ditugu gure pausuak. Baina azpimarratu behar dugu Eak erakundeetako gobernuan edo legebiltzar-oposizioan egon denean hainbat eremutan, adibidez hezkuntzan, lortutako aurrerapenetan egin duen ekarpen historikoa. Ukaezina da, hezkuntza arloan, Eusko Alkartasunaren eskutik, Hezkuntza Lege propioa zein Euskal Curriculum-aren inguruan egindako lana.

LOMCE Legeak euskal hezkuntza komunitatean sortutako haserrea eta ezin egona bistakoa da. Eta Eusko Jaurlaritzaren epeltasuna eta menpekotasuna Madriletik datozen inposaketan aurrean lotsagarria. Guraso, ikasle, irakasle, hau da, hezkuntza komunitatea LOMCeri planto egiteko eskatzen ari den bitartean Eusko Jaurlaritza itsu eta gor agertzen zaigu.



Beste alde batetik ukaezina da euskal hezkuntza sistemaren egitura: hezkuntza eredu publikoa, pribatua, kontzertatua. XXI. mendean egungo ereduaren sistemak eman beharrekoa eman du. Urteetako hezkuntza publiko/pribatu/kontzertatu borroka antzua bihurtu da eta ez gaitu inora eramán. Blokeo egoera batean gaude eta ezinbestekoa da aurrera pausoak ematea.

Beste alde batetik eta lurralde errealitateari erreparatuz, gurea berezia da hezkuntza sistemei dagokienez: Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea. Eremu bakoitzean errealitate eta ezaugarri propioak daude. Eta egungo errealitate politikoak (Nafarroako gobernu akordioa, Partzuergoa iparraldean) izugarritzko aukera aurkezten digu planteamendu bateratzaileak emateko.

Esandako guztiak Euskal Hezkuntza Itunaren beharra nabarmentzen du egungo ereduaren egoera gainditzeko eta Euskal Hezkuntza sistema propioa, bateratzailea, anitza eta eleanitza, hezkidetzan eta elkarlanean oinarritua, berdintasuna bultzatzen duena, elkarreragilea, eraldatzailea, publikoa eta kalitatezkoa bultzatzeko.

### 3.7. Ingurumenarekin orekan dagoen gizartea

Planetako bizitzaren berezkoak diren elementuek jasandako aldakuntzak denboraren zatirik handienean kausa naturalen ondoriozkoak dira. Gizakiak historian eta izan diren zibilizazioetan zehar izan duen garapenak ere bizi garen planetaren ingurumenean eragina izan du. Iraultza industrialaren hasieraraino, garapen horrek ez zituen apurtzen bizitzaren jarraipenerako oinarritzkoak eta beharrezkoak diren orekak. Hala eta guztiz ere, gure historiaren azken 200 urteek naturaren eta giza zibilizazioaren arteko orekan hauskortasuna agerian utzi dute. Gaur egun espezie gisa aurrez aurre ditugun arriskurik handienak demografia esplosibo baten eta, batez ere, gure garapen-moduaren ondorio dira.

Planeta osoan eragina duen fenomeno hori gure toki-mailan ere gertatzen da. Euskal Herrian, garai horretan, lurraldearen eraldakuntza eta ekosistema-galera ikaragarriak izan dira. Guk ditugun ingurumen-pasiboak zoru, ur eta aire kutsatuak, biodibertsitatea eta paisaia-balioen galera eta abar dira, eta natura bizitzarako ezinbesteko ondarea dela eta gainera finitua dela kontuan izan gabe natura-kapitala kontsumitu duen garapen sozioekonomikoaren ondorio dira.

Euskal herritarren aztarna ekologikoa gaur egun, mendebaldeko herrialde gehienetan bezala, jasangaitza da. Planetak ematen diguna baino gehiago kontsumitzen dugu urtero, eta horrela natura-ondarearen oinarria pixkanaka murrizten ari gara. Baina jasangaitza izateaz gain eta Nazio Batuen Erakundeak ezarritako milurterako garapen-helburuen

lorpena modu egoistan arriskuan jartzeaz gain, prozesu horietan guztietan belaunaldien arteko elkartasunik eza dramatikoa eta bidegabekoa da.

Egungo belaunaldiak ez dugu etorkizuneko belaunaldien osasuna eta aurrerapena hipotekatzeko eskubiderik, eta horregatik gutariko bakoitzak ingurumenari lotuta etengabeko ahalegina egin behar dugu nahitaez; hori izango da gure ekarpena.

Ingurumenaren zaintza erakundeen esku uztea ez da nahikoa. Beharrezkoa da gure portaera indibidualek sortzen dituzten mugei eta arriskuei buruzko mentalitate berri bat eta ingurumena hobetzeko "gauzak egiteko" borondatea izatea, baita eguneroko zereginik ohikoenetan ere. Eta zuzentasunari eta elkartasunari zor, baita biziraupenari ere, hori egitera behartuta gaude.

Energiaren kudeaketa publikoa aldarrikatzen dugu. Energiak herritarren ondare izan behar du, eta beraz herritar guztien oinarritzko eskubide.

Energia produzitzeko eredu deszentralizatu bat defendatzen dugu, energia produzitzeko guneak kontsumitzaileengana ahalik eta gehien hurbiltzeko, horrela ingurune bakoitzean ingurumen-inpaktuak murrizteko.

Energia propioak sortzeko gai izan behar dugu baliabide berriztagarriak erabiliz eta energia fosilak alde batera utziz, azken horiek ingurumen-inpaktuak dakartzatelako, pertsona eta ekosistemen osasunari kalte eginez.

Gure ingurunean ez dugu energia sortzeko teknika arriskutsu edo kutsatzailerik, frackingik edo planta nuklearrik onartzen.

Gure etorkizuneko energia-eredua kontsumoaren murrizketan eta energia-iturri propioen bidezko autohornikuntzan oinarritu behar da.

Euskal gizarteak, historian zehar ingurumenarekin orekan bizi izan bada ere, ez du inoiz ere ahaztu behar gozaten edo baliatzen ari den ingurumena etorkizuneko belaunaldiei egoera hobean entregatu behar diela. Hori lortzeko, EUSKO ALKARTASUNAK ingurumenaren zaintzari lotutako balio solidarioak sustatzeko ahalegina egingo du, herri gisa dugun marka jasagarria eta gure kidekoekin eta gure ondorengoekin zuzena izango den arrasto ekologikoa uztartuta ikus daitezen.

Horregatik guztiagatik, EAK kudeatzen dituen erakundeetan teoria politikotik praxisera urrats ausartak emango ditu, hala nola, energia nuklear, erraustegi, fracking eta Itsaso-Gueñes bezalako gaitasun handiko lineen kontra lan eginez eta energia berriztagarri, hondakinen gaikako bilketa eraginkor, mugikortasun proiektu iraunkor, Natura 2000 sarearen aldeko proiektuak gauzatuz.

### 3.8. Balioak eta identitatea

EUSKO ALKARTASUNAK defendatzen du euskal gizartea, dekantazio historikoko prozesu baten eta krisiak eta gatazkak gainditzeko ahaleginaren emaitza gisa, erabat gai dela eduki etiko handiko balioak izateko, balio horiek identitate propio eta bereizi baten funts nagusia izanik. Ildo horretan, honako balio hauek bultzatu eta defendatu beharra aldarrikatzen dugu:

- **Bake-bizikidetzaren lortzeko nahi handia**, justizian, eskuzabaltasunean eta indarkeria guztiak gainditzean oinarritzen den bizikidetzaren alegia.
- **Ongizate-sistema** aurreratu batean oinarritzen den gizarte-kohesioa; sistema horrek bermatu behar du herritar guztiak beren potentziala hedatzeko eta bizitza duina izateko aukera izango dutela, eta ez du utziko kide bakar bat ere babesik gabe, krisi ekonomikoko egoeran egon arren.
- **Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-eredu bat**, generoen arteko diskriminazio- eta mendekotasun-egoera iraingarriak gainditzeko ahalbidetuko duena.
- **Euskara erabiltzeaz harro egotea eta besteei transmititzeko ardura izatea**; munduan gaur egun hitz egiten diren hizkuntzen artean zaharrenetakoa da euskara.
- **Ingurumenarekiko jarrera arduratsua izatea**, aurrez aurre ditugun arrisku klimatikoak eta bestelako arriskuei aurre egiteaz gain, gure garapen-maila ez dutenekin eta etorkizuneko belaunaldiarekin portaera solidarioa izango duena.

Balio zibiko horiek guztiak finkatzeko eta positiboki garatzeko beharrezkoa da herritarrek prestatuta eta informatuta egotea eta kritikoak izatea, eta era berean adostasun sozial zabalak oinarri izanik garatu ahal izateko esparru politiko eta administratibo bat edukitzea.

Askotariko identitate eta sentsibilitateak dituzten herritarrez osatuta dago euskal gizartea. Argi dago. Hala eta guztiz ere, EUSKO ALKARTASUNAREN proiektuak ez du elementu sakabanatzailerik. Gure identitatearekiko agerikoena hain zuzen ere denborak aurrera egin ahala eratzen ari diren xede-balio horiek direla kontuan izanik, EUSKO ALKARTASUNAREN jarduna autogobernuko esparru politiko bat posible egitera bideratuko da beti. Esparru politiko horretan ez da ezer inposatuko eta gure bizitzeko eta elkartasuna ulertu eta gauzatzeko modua babestuko da eta etengabeko hobekuntza bermatuko da.

## **4. EUSKAL HERRIA, NAZIOTIK ESTATURA**

Sortu zen unean bertan EUSKO ALKARTASUNA Europaren barruan Estatu propioa sortzearen alde agertu zen. Kultura- eta hizkuntza-identitate propioa zuen Herri baten sentimenduari erantzungo zion Estatu bat.

Bide horren alde agertu zen, batetik, nazioarteko eszenatokian Euskal Herriaren biziraupena bermatzen zuen bide bakarra zelako, eta bestetik, gizarte-eredu zuzena eta solidarioa eraikitzeko bide bakarra zelako.

Hogeita hamar urte igaro ondoren, EUSKO ALKARTASUNAREN ustez, bere etorkizuna erabakitzeko erabateko ahalmena izateak bakarrik bermatu dezake askatasunen eta justizia sozialeko esparru nahikoa Euskal Herriarentzat, eta gure alderdiak apustu hori berresten du.

Horretarako, Euskal Herriari dagozkion eskubide eta printzipio guzti-guztiak aldarrikatzen ditu. Legitimitate Historikoaren Printzipioa euskaldunek Nafarroako Erresumaren barruan lortutako batasunaren haritik dator. Gaztelako Erresumak eta Aragoiko Koroak erresuma hori suntsitu zuten, lehenik mendebaldeko lurraldeetako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) zati bat konkistatuz 1200. urtean, eta jarraian, 1512. urtean hasitako inbasioa aurrera eramanez, horrela amaitu zelarik 700 urteko historian nazioartean onartutako Estatu subiranoa.

Halaber, ez dio uko egiten munduko Herri eta Nazioei dagokien Autodeterminazio Eskubideari, baina Nazioarteko Komunitateak eta Estatuak eskubide hori ukatzen digutela ikusirik, EUSKO ALKARTASUNAK Printzipio Demokratikoaren aplikazioa eskatzen du.

### **4.1. Munduan bere presentzia erabakitzeko eskubidea duen nazio bat. Printzipio demokratikoa**

Edozein garapen politiko gauzatzeko, gure ustez funtsezkoak dira Herrien erabakitzeko eskubidea eta eskubide horrek Herriei euren ibilbide politikoa askatasun osoarekin egiteko ematen dien legitimitatea.

Europako eta munduko beste toki batzuetako nazio askoren nahi legitimo eta era berean zahar horrek finkatuta dauden Estatuaren intrantsigentziarekin egin du talka historikoki, izan ere, Estatu horiek, euren lurralde-osotasunari eusteko helburuarekin, funtsezko eskubideei

buruzko nazioarteko deklarazio, gutun eta itunen interpretazio murriztaileak aplikatu baitituzte.

Horrela, egiaztatu ahal izan dugu Herriek determinazio librerako duten eskubidea prozesu koloniala jasan duten Herrietara edota zapalkuntzaren bidez eskubideen urratze sistematikoak jasan dituzten Herrietara mugatu dela, modu horretan Herriaren katalogazioa bera eta bere eskubide legitimoak mugatuz.

Azken batean, Herrien legitimitatearen eta Estatuak legitimitate horren aurrean jartzen duten legezketasunaren arteko konfrontazio baten aurrean gaude. Konfrontazio horrek gatazka politikoak sortu ditu munduko toki askotan, mota guztietako garapenak eta amaierak izan dituztenak, eta zoritxarrez kasu askotan berme demokratikoak urratu dira eta konfrontazio armatua erabili da gatazkak konpontzeko.

EUSKO ALKARTASUNAK bide baketsu eta demokratikoen alde egin du beti, negoziazioaren eta adostasunaren aldeko apustua eginez, baina horrek konfrontazio politiko, desobedientzia zibila, ezabatzea ekarri gabe, gure ustez guztiz legitimoa baita, metodo demokratikoekin egiten bada, noski.

Horregatik, gure herriaren eskubideak garatzeko bideak bilatzeko garaian, aipatu ditugun ezaugarriak dituzten adibideak izan ditugu kontuan; gizartearen borondateari eta bide baketsu era demokratikoei lehentasuna eman dieten prozesuak izan ditugu kontuan.

Adibide horietako bat Quebec-eko prozesua eta Printzipio Demokratikoa da.

Kanadako Auzitegi Gorenaren 1998ko abuztuaren 20ko irizpenean oinarrituta landutako printzipioa; irizpenean adierazi zuen Kanadako konstituzioak ez zuela aitortzen Quebec-en aldebakarreko banantzerako eskubidea, baina aldi berean adierazi zuen sezesioa ez zegoela debekatuta, eta quebecarren gehiengo handi bat sezesioaren alde agertuz gero Kanadako sistema konstituzionalak ezin izango zuela ezer egin gabe geratu halako borondate-deklarazioaren aurrean. Quebec-eko gizartearen gehiengo argi batek Estatu propioa izateko borondatea adieraziko balu, Kanadako gobernu sezesio-prozesua negoziatzera behartuta egongo litzateke.

Printzipio Demokratikoa sezesio-prozesuak negoziatzeko betebehartzat uler dezakegu, gatazka politikoak konpontzeko prozedura bat ezartzen baitu. Printzipio honek estatuetakoa konstituzioak ez ditu behartzen sezesio-eskubidea onartzera, baina bai ordea negoziazio eta itunen bitartez egin behar izatera. Printzipio Demokratikoak aldebikotasuna ezartzen du prozedura gisa.

## 4.2. Aldebakartasuna/aldebikotasuna

EUSKO ALKARTASUNA Printzipio Demokratikoaren alde egon da hura ezarri zenetik, eta Euskal Herrian gatazka politikoa konpontzeko bide gisa hura aplikatzea proposatu du. Bide horrek euskal herritarren gehiengoaren borondatea errespetatzen du eta itundutako prozedura bat proposatzen du, prozedura guztiz demokratikoa eta, beraz, gure Herriak hainbeste hamarkadetan jasan izan duen arazo politikoa konpontzeko baliagarria.

Nolanahi ere, Printzipio Demokratikoak ezartzen duen aldebikotasunaren bideak gatazkan dauden bi alderdiak interpelatzen ditu; gure kasuan Euskal Herria eta Espainiako eta Frantziako Estatuak, eta baliozko bidea izateko bi alderdiek baliozkotu eta errespetatu behar dute.

EUSKO ALKARTASUNAK aldebiko bide bati ekiteko konpromisoa hartzeak ez du esan nahi Espainiako eta Frantziako estatuak prozedura hori ontzat emateko zain egongo denik besterik gabe, eta ez du hori egingo. Espainiako eta Frantziako gobernuek aldebiko bidea onartzeari behin eta berriz uko egin izanak ez du eragotziko Euskal Herriaren erabakitzeke eskubidea errealitate bihurtzea.

Aldebikotasuna aukerarik gabeko bide bihurtzen bada, EUSKO ALKARTASUNAK aldebakartasunaren ibilbideari ekitea proposatzen du.

Bide zailagoa da, inolako zalantzarik gabe, Estatuak aparatuek aurrez aurre izango dituelako, baina era berean legitimitatea du nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik, Nazioarteko Justizia Gorteak (Nazio Batuen Erakundearen auzitegia) Kosovoren aldebakarreko independentzia-deklarazioari lotuta eman zuen ebazpena aurrekari gisa hartzen badugu.

Ebazpen hartan, aipatu auzitegiak adierazi zuen Kosovoren independentzia-deklarazioak ez zuela nazioarteko zuzenbidea urratzen, eta gainera bi ekarpen garrantzitsu egin zituen antzekoak ziren beste gatazka batzuk konpontzeko.

Lehen ekarpena, Kanadako Auzitegi Gorenaren doktrinaren aplikazioa, eta Kosovoko auzia konpontzeko borondaterik ezak Serbiako Estatuari eragin zizkion ondorio kaltegarrien adierazpena da, Kosovoren aldebakarreko independentzia-deklarazioaren legitimitatea indartu baitzuen.

Bigarren ekarpena, Estatuaren lurralde-osotasunaren printzipioari egin zion mugapena da, printzipio horren aplikazioa soilik estatuaren arteko gatazketara mugatuz, eta era horretan adierazten zuen printzipio hori ezin zela erabili Herrien sezesio-legitimitatea zalantzan jartzeko.

Irizpen horren arabera, alderdietako batek ez badu eseri nahi negoziatzera, beste alderdiak legitimitatea du prozesua alde bakarretik egiteko.

EUSKO ALKARTASUNAK euskal gizartearekin konpromiso bat hartu zuen sortu zen unean bertan, 1986. urtean: Euskal Herria Estaturik gabeko nazioa izatetik Estatu propioa duen nazioa izatera igarotzeko bidea egitea, Herrien Europarekin bat egingo duen Europar Batasun sozial baten esparruan.

Hori lortzeko, lanean jardungo du Euskal Herriari dagokion erabakitze eskubidea errealitate bihur dadin eta bere borondatea normaltasun osoarekin adierazi ahal izan dezan.

Era berean, Printzipio Demokratikoan oinarritutako aldebiko prozesuaren aldeko apustua egingo du, baina ez dio bide aldebakarrari uko egingo Espainiako eta Frantziako estatuak beren horretan jarraitzen badute eta ez badute onartzen Euskal Herriaren erabakitze eskubidea, iraganean behin eta berriz egiaztatu ahal izan dugun moduan. Kataluniako Herria egiten ari den bide aldebakarra erabat errespetatzen dugu herriaren babesak ematen dion legitimitatearengatik, eta gure Herriak bere etorkizunaren jabe izateko seguru aski jarraitu beharko duen adibidetzat jotzen dugu.

### 4.3. Barne-artikulazioa / Lurralde Historikoen Legea gainditzea / konfederazioa

Etorkizuneko euskal Estatua lortu eta konfiguratzeko ezinbestekoa da autodeterminazio-eskubidea aplikatzea, hala bere kanpo-alderdian nola barnekoan, hau da, hala zazpi euskal lurraldeak gaur egun kokatuta dauden bi Estatuekin ezarriko den harreman mota artikulatzeko nola lurralde horien eta beren antolaketa politikoaren artean ezarriko den barne-artikulaziorako.

Gaur egun Euskal Herriaren lurralde-errealitatea bost eremu juridiko-politiko desberdinetan dago zatituta: Ipar Euskal Herria, Frantziako estatuaren barnean, eta Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea Hego Euskal Herrian eta Espainiako estatuaren barnean, ahaztu gabe, Villaverde Harana, Argantzón eta Trebiñu barrutien egoera ulergaitzak.

Lurralde-errealitate hori, era berean, errealitate bereizia da erakundeei, komunikabideei, hezkuntza-sistemei eta beste esparru batzuei dagokienez, eta beraz, eremu bakoitzaren errealitateek eta ezaugarriek izaera propioa dute. Hainbat gai daude Euskal Herri osoan



eragina dutenak eta berezkoak direnak, baina dinamikek erritmo propioa izan ohi dute eta askotan ez datoz bat.

Goian esandakoak, era berean, ezin du ukatu espainiar Estatuaren aldetik gure herri izaera eta nahia ukatzeko erabiltzen dituen tresneri juridiko eta administratibo guztiak: Trebiñutar zein Villaverdetarrek aukera izan dutenean Euskal Herriarekin zer nolako harremana izan nahi duten hautatzeko, hautu hori behin eta berriz ukatua izan da.

Euskal Herri burujabea lortzeko 1986an hartu genuen konpromisoa bete nahi badugu, gure herriaren errealitate desberdinetara moldatu beharko dugu, eta horretarako gehiengoak lortu beharko ditugu lurralde-eremu bakoitzean; gehiengoak Iparraldean, gehiengoak Nafarroan eta gehiengoak EAEn. Gehiengo horiek eremu bakoitzean dagoen errealitatean oinarrituz eta errealitate bakoitzak ahalbidetzen duen erritmoarekin eratuko dira.

Beraz, barne-artikulazioari dagokionez, EUSKO ALKARTASUNAK erritmo desberdinak izango dituen prozesu bat proposatzen du, euskal errepublika konfederal baten eraketarekin amaituko dena, non eremu bakoitza bere herritarrek hala erabakitzen dutenean barne hartu ahal izango den.

Nolanahi ere, erritmo desberdinak aplikatzeak ez du esan nahi lurralde-eremu desberdinen artean harreman normalizaturik izango ez denik, eta horretarako erakundeen artean, nahiz kulturaren edo ekonomiaren arloan, lankidetzaz errazteko lan egingo dugu, hori lortzeko beharrezkoak diren lurralde arteko lankidetzarako organoak sortuz.

Bestalde, adierazi behar da barne-artikulazioak era berean eremu juridiko-politiko bakoitzaren barnean dauden lurraldeak antolatzea dakarrela, eta eremuaren artikulazio egokia edo desegokia amaierako helburu politikorako lagungarri edo oztopo izan daitekeela.

Ildo horretan, adierazi dezakegu EAeko azken hogeita hamar urteetako antolamendu politiko-administratiboa, Lurralde Historikoen Legearen baitan, nazio-eraikuntzarako oztopo izan dela, taifa-erresumen gisakoak bultzatu dituelako eta hiru lurraldeek lehiatzeko eta bata bestearengandik bereizteko ahalegin handiagoa egin dutelako sinergiak bilatzeko baino. Mota guztietako azpiegiturak eraikitzeko inbertsio-ardurak eta Aldundien eskumenak kudeatzeko gogo biziak ekarri dute hogeita hamar urte geroago zerbitzu askoren bikoiztasuna edo kudeaketa bereizi ez-eraginkorra ohiko errealitate izatea gure herrian, eta horrek ondorio ekonomiko negatibo nabarmenak ekarri dizkie Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako emakume eta gizonei.

Bestalde, urte hauetan behin eta berriz ikusi ahal izan dugu lurralde-interesak nazio-interesaren gaineratik jarri direla, eta nazio-ikuspegiarekin bultzatutako hainbat proposamen zapuztu egin zirela lurralde-erakundeetatik jarritako betoengatik.

EUSKO ALKARTASUNAK egungo sistema berrikustea proposatzen du, toki-erakundeen funtzionamendu egokia bermatzeko eta erakunde komunen funtzionamendua indartzeko, alde batetik eskura ditugun baliabide mugatuak modu egokian aprobetxatzeko, eta bestetik, proiektu politikoaren nazio-ikuspegiari lehentasuna emateko. Bide hori urratzen hasteko, lehengo neurri eraginkor eta pragmatiko moduan, EAEko fiskalitatea Legebiltzarrean arautzea proposatzen dugu eta, horren eskutik, iruzurraren aurkako inspektzioa Jaurilaritzan sortzea.

Azken batean, EUSKO ALKARTASUNAK botere nazionala duen herrialde baten alde egiten du, politika zatitzaileen –dagoeneko eraturako EAEn ageri diren joera probintzialistak, esaterako– aurkako ikusmolde batetik, baina gaur egun eremu politiko-administratibo desberdinetan dauden Nafarroan eta Iparraldean hartuko diren erabakiak errespetatuz, non mailaz mailako prozesua eta formula konfederala egokiak izan litezkeen lurralde horien espezifikotasunari eta historiari erantzuteko.

#### 4.4. Diasporaren egitekoa

Diasporari buruz hitz egiten den bakoitzean zortzigarren lurraldea aipatzen da, eta iraganean eta batez ere errepresio-garaian kultura-erreserba gisa eta errepresaliatuei laguntzeko bete duen zeregin garrantzitsua azpimarratzen da.

Gaur egun ere egiteko garrantzitsua betetzen du diasporak, mundu osoan barrena euskal identitatea eta kultura hedatuz, eta horren adierazgarri dira La Platako Unibertsitateko Euskarako eta Euskal Kulturako Lektoradoa Argentinan, Katedra Libreak, UNLPko Zuzenbide Fakultateko ONSE Estaturik gabeko Nazioen Behatokia edota Renoko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroa Ameriketako Estatu Batuetan. Gainera, diasporak gero eta bitartekotza-eginkizun garrantzitsuagoa betetzen du Euskal Herriaren eta beste herrialdeen arteko harreman ekonomikoei dagokienez.

Diasporaren egitekoa garrantzitsua da, mundu osoan Euskal Herriaren berri emateko baliagarria delako, baina gure buruari galdetu behar diogu hori nahikoa ote den, batez ere Espainiako eta Frantziako estatuek Euskal Herriak determinazio librerako dituen helburuak ez dituztelako onartzen ezta baimentzen ere.

Erantzuna ezezkoa da. Euskal Herria bere historian zehar herri erabat emigratzailea izan da, eta horren ondorioz euskal jatorria duten hamabost milioi lagun inguru bizi dira Euskal Herritik kanpo. Horrek esan nahi du gaur egun Euskal Herriarekin harremanen bat duten hamabost milioi lagun daudela? Erantzuna oraingoan ere ezezkoa da, baina ez dugu bazter utzi behar diasporak Euskal Herriaren interesen aldeko eragina izango duen nazioarteko

lobby bat eratzeko duen potentzial handia. Armeniako, Israeleko edo Irlandako adibideak aski ezagunak dira, eta frogatzen dute nazioarteko eraginak gertakarien garapena asko baldintzatzen duela.

EUSKO ALKARTASUNAK, diasporari dagokionez, euskal hizkuntzaz, kulturaz eta folkloreaz haraindi doan politika baten aldeko apustua egiten du. Garrantzitsua da baina ez da nahikoa. Erabateko burujabetza lortzeko bidean aurki ditzakegun aliatu guztiak behar izango ditugu, eta diasporak zeregin horretan ekarpen handia egin dezake.

Gainera, proposatutako euskal lobbyaren osagarri, “Euskal Herriko lagunen” elkarteak jar liteke abian, besteak beste katedradunak, idazleak, kultura-agentek, kirolariak bilduko lituzkeena “Euskal Herriaren mundu-enbaxadore” gisa.

Horrez gain, EUSKO ALKARTASUNAK antolatu beharko lituzke, Nazioarteko Politikaren eta Garapenerako Lankidetzaren arloaren barruan, diasporak alderdiaren erabaki politikoetan parte hartzeko bideak. Diasporaren eta diasporak gizartean eta ekonomian duen eraginaren bitartez, herrialde horiek Nazioarteko Erakunde eta Foroetan presio politiko eta diplomatikoa egiteko dituzten bideak indartu beharko liriteke, gure subiranotasun-aldarrikapenerako babesa lortzeko.

## **5. EUSKAL ESTATUA EUROPAN, ETA EUROPAKO ETA MUNDUKO NAZIO ETA HERRIEKIKO HARREMANAK**

Kontinenteen aberastasuna euren herri, hizkuntza eta kulturen aniztasunean dago. Horixe da Europaren kasua eta Europaren eraikuntzarako egindako apustua, EUSKO ALKARTASUNAK beti bultzatu duena eta haren alde lan egin duena. Izan ere, hasiera-hasieratik Carlos Garaikoetxea eta EUSKO ALKARTASUNA Europako Aliantza Librearen sorkuntzan egon ziren duela 30 urte, euren idiosinkrasiaren defentsa eta errespeturako borroka egiten duten Europako Herrien bateratasuna bilatuz, funtsezko premisa bat abiapuntu izanik: Herriek beren autodeterminaziorako duten eskubidea Herri orok egikaritu dezakeen printzipio eta eskubide demokratikoa izan behar du.

Hala eta guztiz ere, Europar Batasuneko Estatuetakoko gobernuak azken 15 urte hauetan Kontseilu Europarrak gainerako europar erakundeekiko nagusitasuna izan dezan bultzatu dute, eta horrek oso ondorio txarrak ekarri ditu ikuspuntu politiko, ekonomiko edo sozialetik, adibidez hartutako austeritate-neurriei edota errefuxiatuen krisiaren kudeaketari dagokienez. Europako Batzordeak proposamenak egiteko ahalmena galdu du, eta Europako Parlamentuak parlamentu orok duen ekimen propiorako ahalmenik izan gabe jarraitzen du. Eskualdeetako Lantaldeak, bestalde, ez du aurrerapenik lortu Bigarren Ganbera, hots, Europako Senatu bihurtzeko daukan nahiari dagokionez.

Gainera, aurten, 2017an, Europar Batasunaren etorkizunean erabateko eragina duten bi faktore daude: Brexita, hau da, Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzea, eta Ameriketako Estatu Batuetako Administrazioaren aldaketa.

Erresuma Batua Europar Batasunarekin erabat identifikatuta edota integratuta inoiz ez dela sentitu eta horregatik klausula eskusibo ugari negoziatu zituela egia bada ere, Brexita, Europaren eraikuntzarako kolpe handia izateaz gain, Batasunaren barruan gainerako kideek doikuntzak egin behar izatea ekarriko du, eta hori gure estaturik gabeko Nazioentzat abagune bat edota atzerakada bat izan daiteke, ikuspegiaren arabera.

Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzeari buruz Eskoziak eta Ipar Irlandak dituzten iritzi desberdinek, Eskozian independentziari buruzko bigarren erreferenduma egiteko aukera eta Irlandak berriz batzeko egin ditzakeen urratsak bizkortu ditzake.

Hainbat estatu kide, ordea, atzera-biltzea proposatzen ari dira, birzentralizazio bat alderdi guztiei dagokienez, baita Europako Parlamentuko ordezkaritza politikoari dagokionez ere, alderdi politikoei Europako hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko % 3 eta % 5 bitarteko atalase bat inposatu nahi dietelako.

Gure nazioetako alderdien flotazio-marrari egindako eraso da hori.

Ameriketako Estatu Batuetako Administrazioan egin den aldaketak, bestalde, Europar Batasuna are gehiago desegonkortu dezake, Erresuma Batuaren eta Ameriketako Estatu Batuen artean alde biko harreman sendoa ezarri delako, eta Europar Batasuna nazioarteko harremanetan ordezkatu eta bigarren maila batera baztertu dezakeelako.

Beraz, ikus dezakegu hala barnetik nola kanpotik hainbat herrik Europa apurto nahi dutela.

EUSKO ALKARTASUNAK, aitzitik, proiektu europarraren indarrean sinesten du, eta gainera proiektua une honetan berri egin behar da nahitaez.

Aldaketak nahitaezkoak dira dagoeneko, eta horregatik aniztasunaren errespetuaren barruan batasuna, eta Europar Estatu berriak eta Europa osatzen duten Herrien helburuak barne hartzeko malgutasuna defendatzen dugunak elkartu egin beharko dugu. Malgutasuna, hain zuzen ere, Europar Batasunaren errealitate juridikoaren barnean hartuta dago. Europar Batasunaren Tratatuaren 4.2 artikulua lurralde-osotasuna bermatzen badu ere, Estatuak Herrien eskubide demokratikoa errespetatu behar dute.

Egungo Europar aldaketa sozial eta ideologikoari lotutako berritasun nagusia zera da, autodeterminazioaren eta Europar Batasunaren barne-zabalkuntzaren aldeko borroka Europaren aldekoa dela, Brexita ez bezala, eta austeritate-politiken aurka dagoen aurrerapen sozialeko diskurtso bati dago lotuta.

Ukaezina da austeritate-politikek desberdintasuna, pobrezia eta bazterkeria sortzen dituztela. Horrek gure gizarteak zatitu eta hausten ditu, eta eskuin muturrak hori aprobetxatzen du botere-maila handiagoak lortzen jarraitzeko.

EUSKO ALKARTASUNAK, hasieratik, nazio-erakuntza eta gizarte-erakuntza elementu deseginezin gisa lotu ditu. Justizia soziala eta aberastasunaren birbanaketa gizarte-kohesioaren eta gure gizarte eta Herrien elkartasunaren zutabe gisa, giza garapen integrala helburu izanik. Horretan dihardugu, baita Europatik ere.

Europar ikuspegi deszentralizatzailea duen baterako lanaren aldeko malgutasuna eta sormena dira etorkizunaren gakoak.

Erronkak handiak dira, baina Europako gainerako Herriekin batera Europar Batasuna eraldatzen jarraitzeko hartu dugun konpromisoa ere oso handia da.

EUSKO ALKARTASUNAREN ustez beste elementu garrantzitsu bat gizarte zibilaren aktibazioa da. Herritarrek erabaki-hartzean parte hartzeko bideak zabaltzen jarraitu behar da. Gure bazkide guztiak bat datoz iritzi horrekin, Penintsulatik kanpo nahiz barnean. Gizarte zibil aktiboa eta aktibatua behar dugu denok nahi ditugun aldaketak egin daitezten. Proiektu baten parte garela sentitu behar dugu merezi duelako, pertsona bakoitzak merezi izatea egiten duelako.

Azken batean, Demokrazia hitz egiten ari gara, Demokrazia erabat baliatzeaz.

Premisa horiek oinarritzat hartuz lankidetzan eta aurrerantz begira dihardugu, orain arte inoiz ez bezala. Katalunia, Eskozia eta Korsika horren adibide ona dira. Horixe da EUSKO ALKARTASUNAK Europako beste Herri batzuekin batera egin nahi duen ibilbidea.

## Catalunya

Katalunia eta Euskal Herriko nazio egoerak eta bilakaerak ezberdinak izan dira. Historian oso atzera joan gabe eta soilik independentzia eskuratzeko gaur egun martxan jarrita duten prozesuri begira, hainbat ezaugarri kontuan hartu beharko genituzke. Alde batetik, ez dago ukatzerik gaur egungo egoerara iritsi baldin badira izan dela, gehien bat, herri aktibazio handia egon delako, eta, bestetik, Espainiaren aldetik, behin eta berriz, ukazioa eta ezetzak baino ez zaizkielako iritsi. Baina, era berean, ezingo genuke ahaztu, desagertu berri den CiU autonomismoarekin apurtu aurretik, alderdien federazio hau 8 urte, bi agintaldi, ERC kidea zen ezkerreko gobernu koalizio batek oposizioa bidali zuela.

Hala ere, ez dago ukatzerik euskal independentistok han egindako lanaz asko eta asko ikas dezakegula.

Kataluniak frogatu du gizarte zuzen eta igualitarioagoa, demokratikoagoa eta irekiagoa lortzeko borroka atxikimenduak sortzen dituela espektro "nazionalistaz" askoz haratago. Gizarte zibilaren aktibazioak, eta gizarteko sektore guztien inplikazioak (sektore akademikoa, enpresariala, sindikala eta kulturala barne), Katalunia gaur egun bere independentziaz inoiz baino hurbilago egotera eraman duten urratsak egitea ahalbidetu dute. Azpimarratzekoa da, era berean, alderdi politiko desberdinek Katalunian bizi diren pertsona guztientzat etorkizun hobea lortzeko xedez borondateak batzeko duten gaitasuna. EUSKO ALKARTASUNAK, Esquerra Republicana de Catalunya alderdiarekin dituen lehentasunezko harremanen bitartez, prozesu horretan parte hartzen du eta jarraitu eta babesten du. Katalunia penintsulako gainerako nazioentzat irekitzen ari den bidea erabakigarria da.



## **6. PARTE-HARTZE POLITIKORAKO MODU BERRIAK ETA ANTOLAKETA-EREDU BERRIA. EUSKAL HERRIA BILDU ETA EUSKAL HERRIA BAI.**

Politikan herritarren parte-hartzea asko aldatu da azkenaldian, eta herritarren zati handi batek alderdi politikoekiko duen desfektazioa errealitate bat da, gure alderdian ere eragina duena. Proiektu politikoekiko atxikimendu apurtezinak desagertzen ari dira eta politikako eta alderdi politikoetako parte-hartzea gaur egun askoz selektiboagoa da. Inolako zalantzarik gabe, gizarteak jarduera politikoan eta erabakiak hartzeko guneetan parte hartzeko formatu berriak bilatzea ezinbestekoa da eta gero eta gehiagotan eskatzen da hori.

Errealitate sozial horrek alderdi eta agente sozial guztiengan du eragina. EUSKO ALKARTASUNA, EH BILDU eta EH BAI ere errealitate horren barnean daude. Horretaz jabetuz, EUSKO ALKARTASUNAK parte-hartzerako, kontsultarako eta gardentasunerako mekanismoak diseinatu behar ditu, eta proiektu estrategikoarekin identifikatzen diren eta proiektu guztiei balio politiko eta publiko erantsia ematen dioten pertsona berriak erakartzeko beharrezkoak diren aldaketak ausardiaz egin behar ditu.

EUSKO ALKARTASUNAREN ustez, EH BAIk Ipar Euskal Herriko herritarren erreferente nagusi bihurtu behar du, abertzaletasunetik haratago joanez ere. Parisen mende ez dagoen, soil-soilik Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako gizon eta emakumeak oinarri izango dituen eta haien esanera jardungo duen erreferentzia izan behar du.

Horretarako, ezinbestekoa izango da beste plataforma batzuekin lankidetzak sakontzea, adibidez Batera plataformarekin, herritarren zati handi baten premiekin bat egiten duelako eta abertzaletasuna indarkeriazko gatazkarekin lotu duen eszenatokia gainditzeko aukera ematen duelako.

EUSKO ALKARTASUNAREN jarduera eta kudeaketari eta EH BILDUN duen lekuari dagokionez, barne-etzabaidak gainditzeko ahalegina egin behar du, etengabeko etzabaida oinarrizatz hartuz, bere helburua EH BILDUREN proiektu pluralari herritarrak atxikitze marjinak zabaltzea eta EUSKO ALKARTASUNAREN lana eta ekarpena eraginkorragoak eta efikazagoak izan daitezen lortzea da.

Horregatik, ponentzia honek finkatu egin nahi du EUSKO ALKARTASUNAKO kideen ustez EH BILDURI egituraketa- eta antolamendu-ereduari dagokionez gehien komeni zaion jarrera, bere helburuak aise lortzeko jarrera egokiena alegia; ondoren, jarrera hori negoziatu eta bateratu beharko da koalizioa osatzen dugun gainerako alderdi politikoekin.

EHBILDUK erreferentzia izan nahi du gehiengo sozial eta plural batentzat, hain zuzen ere herri gisa dagozkigun eskubide demokratikoak baliatzeko borondatean bat etorriko den

gehiengo batentzat, zentroezkerretik ezker erradikalagorainoko ideologiarekin bat egingo duena, eta, desberdintasunak desberdintasun, proposamen aurrerakoiak dauzkaten ibilbide zabaleko eta partekatze moduko programak onartzeko gauza izango dena.

Aniztasun hori eta jarrera desberdinetara irekitzeko joera hori da EH BILDUREN aberastasunik eta indarririk handiena, koalizio aurreratu, ireki eta moderno batean antolaturik bere helburu estrategikoak lortzeko bidean eraginkortasuna eta arrakasta bermatuko diona.

Horregatik funtsezkoa da koalizioa osatzen duten alderdi politikoen zeregin nagusia koalizioan kokatzea, bakoitzaren protagonismo politiko propioa errespetatuz, guztion lana, ibilbidea eta ondarea argi eta garbi erantsi ahal izateko koalizioak suposatzen duen sintesiari. Koalizioa osatzen dugun alderdi politikook helburu komunak lortzeari lehentasuna emateko konpromisoa hartu dugu gure historiari eta gure nortasunari uko egin gabe, urte askotako desadostasunen ondoren traba juridiko eta politikoei eta giza mailako zailtasunei aurre egitea suposatu duen erantzukizun politikoa betez. Konpromiso horretan datza, hain zuzen, koalizioaren indarra, ahalmena eta zabalera. Alderdien presentzia nagusi horrek eta atxiki gabekoen parte-hartzeak azpimarratu beharko lukete EH BILDUREntzat askotariko koloreak nahi ditugula, kolore guztiak kolore bakar batean lausotu beharrean.

Hainbat koaliziotan parte hartu dugu helburu nazional eta sozial espezifiko komun batzuen inguruan borondateak batzeko formulen bila (EA-EUE, EA/EAJ, Nafarroa Bai, Bildu...), eta esperientzia luze horrek erakutsi digunez, koalizioek indar bakar batekin identifikatzeko eta nahasteko inertziari aurre egin behar diote bereziki, eta arrisku horrek EHBILDU plural baten ahalmenari eragiten dio zuzenean.

Horregatik, EH BILDUREN apustu argia berretsiz, eta herritartasun plurala eta irekia proiektuari atxikitzeko ekimena indartzeko eta zabaltzeko ekarpen bat egin nahian, EUSKO ALKARTASUNAK bere jarrera definitu nahi du EH BILDURI eman beharreko bultzada berriaren inguruan, honako premisa hauetan oinarrituta:

EH BILDUK espektro ideologiko eta plural zabala osatu nahi du, non alderdi koaliziokideek eta filiaziorik gabeko pertsonen dakartzaten dinamika eta tradizio guztiak integratu eta elkarri indarra emango dioten; hori guztia parte hartzeko eta erabakiak hartzeko eredu bakarren inposaketatik ihesiz eta koalizioa osatzen dugun alderdion barne-prozesuak errespetatuz. Hori guztia lan-foroak egituratu beharra eta ezinbesteko egitura komunak antolatzeko premia ahaztu gabe, pluraltasuna ekintza politiko bateratu, efiziente eta eraginkor batean kohesionatu ahal izateko. Hori horrela izanik, EUSKO ALKARTASUNAK aukeratu duen antolamendu-eredua alderdi-koalizio irekia da, alderdien erabakiak hartzeko prozesu eta dinamika propioak errespetatzen dituena eta, ezinbesteko organo komunetan, alderdietako kideen eskura eta koalizioa osatzen dugun alderdietako kide izan gabe

proiektuan parte hartu nahi duten pertsonen eskura parte hartzeko eta erabakitzeko egiturak jartzen dituena.

EH BILDUK sakoneko programa zabala prestatuko du erakundeetako hauteskunde guztietarako, gizartearen erronka eta arazo nagusiei erantzuteko moduko proposamenak eginez eta konpromiso politikoak hartuz. EH BILDUREN programa politikoan jasota badaude ere oraindik zehazteke dauden gaietan, EH BILDU koalizioa osatzen dugun alderdi politikook, naturaltasun osoz, gure jarrera politikoa adierazteko aukera izango dugu.

Gobernuan eta administrazioan ekintza eta koordinazio eraginkorra bermatzeko helburuarekin, EH BILDUK oinarrizko antolaketa-egitura batzuk jarriko ditu indarrean, batetik, hartutako erabakiak bizkortasunez gauzatzeko bidea errazteko, eta, bestetik, EH BILDU osatzen duten indar politikoek eta pertsonak eguneroko ekintza politikoan egiten dituzten lanak eta ondorioak bateratu eta koordinatzeko. Halaber, alderdi guztiei behar dituzten baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak bermatzeko zaizkie, koalizioari nork bere berezitasunak eta jarrerak egokitasunez ekartzen jarraitzeko aukera izan dezaten.

EH BILDUK herritarrei parte hartzeko aukera emango die, foro irekiak antolatuz eta kontsultarako mekanismo telematikoak abian jarritz, eta horretarako errolda bat osatuko da prozesu horietan parte hartzeko izena ematen duten guztiekin. Prozesu horietan, herrialdeko erakunde nagusietarako zerrendaburuak bozkatuko dira eta hauteskunde-programak, eta, bidezko bada, Gobernu-programak, berretsiko dira

EH BILDU ordezkatzeko erantzukizun publikoak betetzeko (erakundeetan eta koalizioan), koalizioaren pluraltasuna agerian geratzen dela bermatzeko da, eta, horretarako, EH BILDUREN pluraltasunaren presentzia orekatua ziurtatzeko kuotak ezarriko dira; hori ezinezkoa bada, erantzukizunak hartzeko eta betetzeko txandakako ereduak ezarriko dira.

EH BILDUK tresna bat izan behar du, gure herrialdearentzat askatasuna eta justizia soziala nahi duten pertsona guztiek erakundeetarako eta herri-mugimenduetarako erabilgarritzat eta eraginkortzat jotzen duten subjektu politikoa, eta, horregatik, kolektibo eta pertsona gehiago batzeko asmori eusten dio, EH BILDU koalizioaren ortzadarrera kolore gehiago ekartzeko.

Aldez aurretik adierazi dugun guztiarekin bat etorriz, "EH BILDUREN prozesu eratzailean" proposatutako egiturei dagokienez, EUSKO ALKARTASUNAK, bere Nazio Biltzarraren ondorio gisa, honako ekarpen hauek planteatzeko dizkie gainerako bazkideei:

EH BILDU koalizioan afiliatzeko mekanismoak gaituko dira, soil-soilik, ezein alderditan afiliatuta ez dauden eta EH BILDUN kuota ordaindu eta hitzarekin eta botoarekin parte hartu nahi duten guztientzat. EH BILDU osatzen duten alderdietako kideei eskubide guztiak onartzeko zaizkie, alderdietako kide izateagatik.

EH BILDUN zuzenean afiliatu nahi duten pertsonen kopurua zehaztu ondoren, eta kopuru horren arabera, alderdi politikoek adostu egingo lukete zerrendak osatzeko prozesuetan eta barne-erantzukizunetan egokituko litzaiekeen presentzia-kuotaren ehunekoa. Hori guztia kontuan hartuta errespetatu beharra dagoela alderdi bakoitzak pertsona independenteak izendatzeko erabakia, eta pertsona horiek ez dutela zertan dagokion alderdiko kide izan.

Lehendakaria izateko hautagaiak eta herrialdeko erakunde nagusietako zerrendaburuak sufragio unibertsalez hautatuko dira EH BILDU osatzen dugun pertsona guztien artean, eta horren inguruan bil litezkeen errolda irekietara ere irekiko da bozketa.

Ezein alderditako kide izan gabe koalizioan afiliatzeko erabakia hartzen dutenek pertsona bat hautatuko dute euren artean, Alderdien Mahaiko kide izateko.

Biltzar, Konbentzio eta batzar orokorretan eztabaidatu eta onartzekoak diren erabaki, dokumentu eta proposamen guztiek Alderdien Mahai horren alde aurreko adostasuna beharko dute; ondoren, jasotako ekarpenak adostu eta jatorrizko proposamenei erantsiko zaizkie.

EH BILDUK, funtzionamendu eraginkorra bermatzeko, ezinbesteko administrazio- eta gobernu-organoak antolatuko ditu. Koordinatzaileak bere gain hartuko du organo horiek zuzentzeko erantzukizuna. Jarrera politikoa finkatzeko, alderdietako kideek eta atxiki gabeko pertsonen osatutako batzordeak sortuko dira eremu guztietan. Jendaurreko proiektio eta jardunerako, EH BILDUK bozeramailetza korala zehaztuko du, koalizioaren pluraltasuna agerian uzteko.

Alderdi politiko bakoitzak beste herrialde batzuetako alderdiekiko harreman historikoei eutsiko die, eta gai hori EH BILDUREN kanpo-ekintzari lotuko zaio, alderdi bakoitzak proposatutako ordezkariaren bitartez

EH Bilduk bere funtzionamendurako behar dituen giza baliabideak alderdien eskutik jasoko ditu nagusiki, eta udal-eremuan jardungo dute batik bat. EH BILDUK zuzenean bere gain hartu nahi dituen giza baliabideak, pluraltasun- eta gardentasun-irizpideei jarraikiz hautatuko ditu, eta nazioko eta lurraldeetako Alderdien Mahaian adostuko ditu.

EH BILDUK bere aurrekontua eta kontuak aurkeztuko ditu jendaurrean, urtean behin, eta batzar nagusiak onartu beharko ditu, Alderdien Mahaiak eta dagozkien lurralde-eremuek txostena egin ondoren.

EH BILDU herritar guztiengana eta errealitate eta joera guztietara irekiko da erabat, eta horretarako, eztabaida irekiak sustatuko ditu, desadostasunak aberasgarritzat joko ditu, eta helburuak herritarren kezka berrietara irekiko ditu.

EUSKO ALKARTASUNAK, berriz, EUSKO ALKARTASUNAKO barne-organoek aldeztu aurretik eztabaidatu eta adostutako jarrera eramango du EH BILDUK eztabaidatu beharreko gai guztien inguruan antolatutako erabaki-foroetara. Horretarako, EUSKO ALKARTASUNAKO erabaki-organoei deituko zaie EH BILDUREN foroak egin baino lehen, eta EUSKO ALKARTASUNAK foro horietan dituen ordezkarien jarrera alderdiaren baitan hartutako erabakien arabera izango da.

Pertsonen hautaketari buruzko negoziatio-foroetan (erakundeak, barne-erantzukizunak, eta abar) parte hartzen duten pertsonak ezin izango dira negoziatioaren xede diren pertsonak izan.

EUSKO ALKARTASUNAK EH BILDU koalizioari egiten dion ekarpena funtsezkoa da; esperientzia demokratiko handia duelako, pertsona guztien eskubide guztien defentsan zehazten den konpromiso etikoa duelako, ideia-multzo independentista erradikal eta sozialdemokratikoa duelako, eta EH BILDUKO gainerako alderdien eskuetatik kanpo dagoen gizarte-atxikimendua lortzen duelako.

Horregatik beharrezkoa da estatutu- eta antolaketa-erreformak egitea, EUSKO ALKARTASUNAREN fundazio-balioei dagokienez gure alderdia EH BILDU koalizioan hobeto egokitze eta ekarpen handiagoa egiteko aukera emango duten erreformak.

EUSKO ALKARTASUNAREN indarberritzeak honako printzipio hauetan oinarritu beharko du:

1. EUSKO ALKARTASUNAK nazionalismo barne-hartzaile, zibiko, ezkertiar eraldatzaile eta adeitsuaren aldeko apustua berresten du, konbentzimenduaren bidez mugak zabalduko dituen eta gizarte osoarekin eta haren premia eta interesekin duen loturari esker herritarren atxikimendua lortuko duen nazionalismoa, alegia.
2. EUSKO ALKARTASUNAK bere espazioan lanean jarraituko du bere proiektuaren alde, hura zabalduz, gure herriaren etorkizunean estrategikoki eragina izateko gai den alderdi bat izaten jarraitzeko erronkari erantzuteko. Horretarako, bozeramailetza politiko propioa izango du, baita bozeramailetza sektorial propioak ere, euskal gizarte osoarentzat erreferentzia izango direnak.
3. Gure egungo eta etorkizun hurbileko errealitate politikoaren erronkak eta aukerak kontuan izanik, Euskal Herriak gidatuko duen prozesu independentista batean gizartearen gehiengoa elkartuko duen proposamen bat artikulatu nahi du EUSKO ALKARTASUNAK, era horretan gure liburu gorriak hasitako bidea amaituz, liburu hori gaur egun eguneratuta egonik 2015eko irailean EH BILDUN adostu zen "Euskal Bidea" deritzonarekin.

4. Mankomunitate bakarrak (Euskal Elkargoa) lehen urratsak egin ditu 2017an, eta aurrerapauso bat suposatzen du Ipar Euskal Herriaren gobernuarentzat eta Hego Euskal Herriarekiko lankidetzarentzat. EH BAIK aktore nagusi izan behar du eszenatoki horretan. Herritarren bizi-baldintzak hobetzeak proiektu nazionalerako beharrezkoa den babesa ekarriko du ondorio gisa, baina hori lortzeko, indar abertzaleek historikoki okupatu dituzten espazioak gainditzeko eta asmo handiz jarduteko gai izan behar du EH BAIK.
5. EUSKO ALKARTASUNAK EH BILDUN dauden alderdi politiko eta pertsona ez atxikiekin lankidetzaren estrategikoa eta ekintza-batasuna lortzea beharrezkoa dela berresten du. Gainera, proiektu horietako bakoitzaren nortasuna sakonetik errespetatuz, lankidetzaren hori eta, posible denean, ekintza-batasun hori aurrez aurre ditugun erroketan erantzuteko bloke sozial indartsua eratu dezaketen indar, mugimendu eta pertsona guztietara zabaltzeko lan egin behar dugu, kolektiboekin, mugimenduekin, sindikatuarekin, agente sozialekin, gobernu kanpoko erakundeekin eta abar bat etorritik. Horretarako, EUSKO ALKARTASUNAK eta EH BILDUN aurrera eramanean behar dute biztanlegune handietan ezartzeko prozesua, hiri-subjektu politikoaren eskura garapen eta aurrerapen politikorako behar diren bitartekoak jarri.
6. EH BILDUN koalizioaren helburu estrategikoak hobeto gauzatzeko, EUSKO ALKARTASUNAK koalizioaren barneko pluraltasunaren aldeko apustua egiten du. Horregatik EH BILDUN ekintza publikoan, une oro eta toki guztietan, EUSKO ALKARTASUNAK, bere ekarpenaren balioak ematen dion legitimitatearekin, koalizioaren ondare komuna diren helburuak lortzeko beharrezkoa den pluraltasun eta aniztasun-helburua beteko duen parte-hartzea defendatuko du.
7. Xede horrekin, EUSKO ALKARTASUNAK, bere gobernu- eta kontrol-organoen bitartez, erakunde guztietan eta EH BILDUN estamentu guztietan presentzia izateko estrategia indartuko du, horretarako beharrezkoak diren bitartekoak jarri. Gainera, EUSKO ALKARTASUNAK ez dio uko egiten EH BILDUN koalizioan espazioak irabazteari, kalitatezko proposamenak gidatzeko eta euskal gizartearen eskaerak modu egokian ulertzeko duen gaitasunean oinarrituz.
8. Azken batean, neurri horiek oinarritzat harturik, EUSKO ALKARTASUNAK indartu egiten du EH BILDUN duen konpromiso estrategikoa, betiere gure oinarri ideologikoekiko koherentziari eutsiz eta gure nortasuna errespetatuz, eta Biltzarreko dokumentu honetan konpromiso hori indartuko duela adierazten du, herritarren atxikimendua lortzeko eta herritar guztien eta Euskal Herri osoaren beharrezkoen erantzun eta irtenbide egokiak emango dizkien indar politiko nagusia izateko.